

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4757

EBAZPENA, 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzekoa.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.). UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.). Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.), 2021. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen, eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez (2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk.), administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatu ziren.

Deialdi espezifikoaren kudeaketan ekonomia, eraginkortasuna eta efizientzia ezartze aldera, eskaintza guztiak prozesu bakar baten barruan sartu dira eta prozesu horren oinarri orokorrak onartuta daude UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez.

UPV/EHUren Estatutuen 59., 60. eta 61. artikuluek ezarri bezala, kontuan izanik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek eta II. titularen IV. kapitulua (langileak hautatzeari buruzkoa), Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren IV. titularen I. kapitulua, 2022ko ekainaren 30eko Akordio bateratua, AZPko lan kontratudun eta AZPko funtzionarioen negoziazio mahaiena (LEPetako sarrera prozesuetako deialdiak arautzeko gutxieneko irizpideei buruzkoa), eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak deialdi hau behin onartuta 2022ko urriaren 20ko bileran,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan eskaintza publikoei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere, honetara banatuta:

- Lan kontratudun langileen deialdiaren oinarri orokorrak (I. eranskina)
- Funtzionarioen deialdiaren oinarri orokorrak (II. eranskina)
- Funtzionarioen barne sustapenerako deialdiaren oinarri orokorrak (III. eranskina)

Bigarrena.— Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtoa jar dakioko UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean, Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan/Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa,

123. artikulua) eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko Legea betez (29/1998 Legea, uztailaren 13koa). Kontuan har bedi aukerako berraztertze errekurtsua jarritz gero, ezin izango dela administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri harik eta hura modu espresuan ebatzi arte, edo haren presuntziozko ezespena gertatu arte.

Leioa, 2022ko urriaren 20a.

UPV/EHUko errektorea,
EVA FERREIRA GARCÍA.



I. ERANSKINA

GINARRI OROKORRAK: LAN KONTRATUDUNAK

Lehenengoa.- Helburua.

1.1.- UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko lan eskaintza publikoa onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.), lotua dagoena ekainaren 27ko 3/2017 Legean (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) eta 6/2018 Legean (2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) aurreikusitako tasa gehigarriei, bai eta 2019. urteko birjartze tasari ere. Era berean, azken erabaki horren bidez barne promozioa onartu zen.

UPV/EHuko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.), eta UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez 2021. urteko lan eskaintza publikoa (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.).

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak zehazten du hirugarren prozesu bat egongo dela behin-behineko enplegua egonkortzeko, ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 19.Bat.6 artikuluan eta uztailearen 3ko 6/2018 Legeko 19.Bat.9 artikuluan aipatutakoei gehituko zaiena (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea eta 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea, hurrenez hurren). Hirugarren prozesu horretan sartuko dira administrazio publikoetako plaza estruktural guztiak baldin eta, aurrekontuetan diruz hornituta egonik, gutxien dela 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan behin-behinean eta etenik gabe beteta egon badira.

Gainera, lege horrexen seigarren xedapen gehigarrian, irizpideak zehazten dira iraupen luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko ezohiko deialdietarako. Horrela, legearen arabera, administrazio publikoek, salbuespenez eta TREBEPEko 61.6 eta 61.7 artikuluei jarraituz, lehiaketara aterako dituzte 2.1 artikuluko baldintzak betetzen dituzten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago behin-behineko langileekin etengabe beteak egon diren plazak. Horri gehitu behar zaio lege bereko zortzigarren xedapen gehigarriak dioena, hau da, seigarren xedapen gehigarrian aipatutako egonkortze prozesuetan, gainera, deialdian aterako direla egiturazkoak diren eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik behin-behineko langile batekin beteta egon diren lanpostu hutsak.

Oinarri hauen bidez arau orokorrak ezarriko dira Lan Eskaintza Publikoa gauzatzeko UPV/EHUK egingo dituen lan kontratadunen plazen deialdi espezifikoaren alderdi komunak gidatzeko. Hautaketa prozesuak merezimenduen lehiaketaren bidez egingo dira, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan adieraziko diren plazak betetzeko, dagozkien kupoak gordeta, betiere enplegu publikora iristeko printzipio gidariekin bat etorruta.

Esandakoa oinarri hartuta, bi prozesu mota bereiziko dira, eta bietan merezimenduen lehiaketa erabiliko da hautaketarako.

Prozesu bakoitzean deialdi espezifikoak egingo dira kategoriaka eta espezialitateka, betiere horretarako ezarritako lege baldintzak betetzen dituen lanpostu hutsik badago.



Deialdi espezifiko horiek kasuan kasuko kategoria eta espezialitateei dagozkien titulazio taldeen arabera banatuko dira.

1.- Ohiko prozesua.

Dagokien titulazio taldearen arabera kategoriaka eta espezialitateka egingo diren deialdi espezifikoetan txanda bakarra egongo da, txanda librea, bigarren oinarriari jarraikiz.

2.- Enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko prozesua, goian aipatutako seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak aplikatuz, alegia, abenduaren 28ko 20/2021 Legearenak (Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko Legea). Prozesu honetan dagokien titulazio taldearen arabera kategoriaka eta espezialitateka egingo diren deialdi espezifikoetan txanda bakarra egongo da, txanda librea.

1.2.- Oinarri orokor hauek eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek arautuko dute prozesua, eta lotesleak dira administrazioarentzat, epaimahaientzat eta hautagaiarentzat. Horrek, hala ere, ez du eragotziko, behar izanez gero, oinarriok berraztertzea, administrazioak bere kabuz edo norbaitek errekurtsioa jarrita. Oinarrietako testuak, orokorretakoak zein espezifikoetakoak, bat ez badatoz euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, gaztelaniazkoa izango da nagusi.

1.3.- Halaber, konpromisoa adierazten da generoen arteko aukera berdintasunarekin, langileak Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzura sartzeko prozeduraren beraren oinarrian baitago.

Bigarrena.- Plazak banatzeko arau orokorrak.

2.1.- UPV/EHuren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoak prozesu orokor bakar batean egingo dira, eta deitutako plaza guztietatik % 7 gordeko dira desgaitasuna duten pertsonen betetzeko, eta halakotzat hartuko dira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikuluen 2. paragrafoan definitutakoak, betiere egiaztatzen badute 5.2.e) oinarrian adierazitako desgaitasun maila eta dagozkien zereginak betetzeko gaitasuna.

Gutxieneko ehuneko zazpi (% 7) hori gordetzeko orduan, eskainitako plazen ehuneko bira (% 2) gutxienez adimen desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonen bete beharko dute eta eskainitako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenak. Hori guztia egingo da betetzeko Legegintzako 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (59. artikulua).

Dena dela, abenduaren 28ko 20/2021 Legeko seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien babesean enplegua egonkortzeko egingo den ezohiko prozesuaren kasuan, salbuespenezko prozesu bat denez, behin bakarrik egingo dena, plazen deialdia orokorra izango da, modu berean baloratzeko parte hartzaile guztien merezimenduak. Hortaz, prozesu horretan txanda bakarra egongo da (librea) eta modalitate bakarra (orokorra).

Beraz, UPV/EHuren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEP bateratuko ohiko prozesua osatzen duten plaza guztien ehuneko zazpi (% 7) gordeko da gutxienez.

Aurreko atalean aipatutako erreserba funtzionarioen talde eta eskaletan aplikatu da, kasu bakoitzean oinarri espezifikoek zehazten duten banaketaren arabera, eta, beraz, lan



kontratudunen arloan kategoriaka eta espezialitateka egingo diren deialdi espezifikoetan txanda bakarra egongo da, txanda librea.

Hirugarrena.- Hautaketarako baldintza orokorrak.

3.1.- Kontratua behin sinatuta, hautatutako pertsonak Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun finko izango dira eta arlo horretan indarrean dauden xedapenek emandako eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte.

3.2.- Prozesu honen ondorioz UPV/EHUko lan kontratudun finko bihurtzen direnei alta emango zaie Gizarte Segurantzari, edo, behar izanez gero, bertan afiliatu, lan kontratua sinatzen duten egunetik aurrerako eraginez.

3.3.- Nolanahi ere, lanpostuen hizkuntza eskakizunak derrigortasun data gainditua badauka deialdia egiten denean, ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna oinarri hauetan zehaztuta dagoen moduan egiaztatua izatea lanpostua betetzeko. Era berean jokatu da lanpostuen zerrendan plaza horiek zehaztuta dituzten gainontzeko betebeharrak espezifikoekin.

Laugarrena.- Hautagaiak bete beharreko baldintzak.

4.1.- Hautagaiak hurrengo puntuetan adierazten diren baldintzak –oinarri hauen 8.3 atalean ezarritakoaren arabera hizkuntza eskakizuna egiaztatzeari buruzkoa salbuetsita– bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta, haiei lanposturik esleitzuz gero, kontratua formalizatu arte mantendu beharko dituzte.

4.2.- Hauek dira onartua izateko baldintzak:

a) Hauetakoren bat betetzea:

- Europar Batasuneko herritarra izatea edo EBko herritar baten ezkontidea izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), edo halako herritar baten edo haren ezkontidearen ondorengoa izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, haien pentsura bizi badira.
- Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenak direla bide, langileen zirkulazio askea aplikatzen den herrialderen bateko herritarra izatea.
- Enplegu publikorako eskubidea duen atzeritarra izatea, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren arabera (5/2015 ED, urriaren 30ekoa).

b) Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.

c) Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Hautaketa prozesua behin gaindituta, hautagaiak gaitasun funtzionala duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori bete beharko du kontratua formalizatzeke.

d) Diziiplina espediente baten ondorioz desgaituntzarik ez izatea funtzio publikoak betetzeko edo aldenduta ez egotea administrazio publikoen zerbitzuetik. Beste estatu batzuetako nazionalitatea dutenen kasuan, desgaituntzan edo pareko egoera batean ez egotea, eta



diziplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzea eragotzen dionik.

e) Deialdian eskatutako titulu ofiziala edo homologatua edukitzea edo ordainduta izatea titulua jasotzeko eskubideak, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria edukitzea, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofizial bat izatea, kasu guztietan eskariak aurkezteko epearen barruan. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala izatea.

f) Indarreko legeriari jarraituz, legezko ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren egoera batean ez egotea; edozelan ere, legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea errespetatuko da.

g) Hautaketa prozesuan izena emateko ordaindu beharreko tasa ordainduta izatea, indarreko arauei eta haien eguneratzei jarraituz, 5.4 oinarrian aipatutako salbuespenarekin. Zenbatekoak deialdi espezifiko bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

h) Lanpostuen zerrendak dena delako plaza edo postuetarako zehaztutako gainerako betebeharrak guztiak betetzea, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitakoaren arabera.

i) Ez izatea UPV/EHUko kategoria bereko lan kontratudun langile finkoa.

Bosgarrena.– Eskariak aurkeztea.

5.1.– Eskariak aurkezteko epea eta era.

Oinarri orokor hauetatik sortutako deialdi espezifikoetan parte hartzeko eskariak hogei (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, bide hauetako bat erabiliz:

a) Internetez, www.ehu.eus helbidean egongo den eredu oinarri hauetako 5.2 atalean zehazten den bezala betez eta bidaliz. Bide hau aukeratuz gero, eskatzaileak irakurrageria eskuratuko du erreferentzia zenbaki batekin, eta tasak ordaintzeko xehetasunekin.

b) Oinarri hauetako 5.3 atalean adierazitako lekuetan eskuragarri egongo den eskari orria beteta, bat etorrita oinarri hauetako 5.2 atalean zehaztutakoarekin.

5.2.– Onartuak izateko, hautagaiak honako hauek egin beharko dituzte parte hartu gura duten deialdi espezifiko bakoitzean:

1) Eskariko atal guztiak bete, eta aurkeztu beharreko agiriak erantsi.

Adierazitako epearen barruan baldintzak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du, euskarako eskakizuna egiaztatzeko aurreikusitakoaren kasuan izan ezik.

2) Eskaria epe barruan aurkeztu, eta

3) Tasak ordaindu. Era berean, hautagaiak baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere; salbuespena da 8.3 oinarrian zehaztutako baldintza.

Eskarian honako datu hauek eman beharko ditu hautagaiak:

a) Datu pertsonalak, prozesua behar bezala gestiona dadin.



b) Zein kategoriatan eta zein espezialitatetan nahi den parte hartu.

c) Alegatutako titulazioa. Eskariari erantsi behar zaio honako agirien fotokopia: deialdian eskatutako tituluarena edo titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izanaren egiaztagiria, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofizialarena.

d) Zinpeko adierazpena, hautagaiak adierazita baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere.

e) Tasak ordaindu izana.

5.3.– Eskariak aurkezteko lekuak:

Eskariak aurkezteko bide nagusia UPV/EHuren Lan Eskaintzen Ataria da.

Lan Eskaintzen Ataria erabili ezean, eskaria UPV/EHuren erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>) «Jasotzailea» atalean Gerentzia adierazita. Hori guztia bat etorrita 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.e) artikuluan zehaztutakoarekin eta UPV/EHuko idazkari nagusiak 2021eko apirilaren 28an emandako Erabakiarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHuko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHuko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Eskaria behar bezala aurkeztu ondoren, eskari egileak ziurtagiria eskuratuko du.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHuko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. artikulua).

Lan Eskaintzen Atariaren bidez egindako eskariak ez dira beste bide honetatik aurkeztu behar. Dena dela, eskatzaileak tasa ordaindu badu sistemak ematen duen ordainagiria erabiltzeke, ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.



5.4.– Eskariak aurkezteko ordaindu beharreko tasak:

Oinarri hauetako 5.2.e) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan (ikus 5.1 oinarria) ordaindu beharko dira, Kutxabanken.

Eskaria UPV/EHuko webgunearen bidez aurkezten dutenek (5.1.a) oinarria) «ordainketa pasabidearen» bitartez ordaindu ahal izango dituzte tasak, sisteman bertan zehazten diren baldintzak betez. Bestela, ordainketa Kutxabanken egin ahal izango dute.

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikotik zehaztuko da azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko kopurua.

Hautagaiei ez zaie tasen dirua itzuliko prozesutik kanporatuak badira beren jokabideagatik edo dokumentuen bidez ez egiaztatzeagatik benetan betetzen dituztela oinarrietan eskatutako baldintzak, nahiz eta hala egiten dutela ziurtatu eskariarekin batera aurkeztutako adierazpenean.

Eskariarekin batera azterketa egiteko tasa osorik ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskariak aurkezteko epean tasak ordaindu ezean, hautagaia prozeduratik kanpo geratuko da, oinarri hauetako 5.2.e) atalean prozesuan onartua izateko zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik.

Aurrekoa gorabehera, ordaindutako kopuruan ageriko akats nabarmena badago, akatsa zuzendu ahal izango da 6.2 oinarrian zehaztutako baldintzetan.

Tasa ordaindu eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; ezinbestekoa izango da eskaria behar den epean eta eran aurkeztea, 5.1 oinarrian zehazten den bezala.

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Enplegu bulegoetan lana bilatzeko izena emanda dauden eta inongo prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak. Horretarako, eskariarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: eskariak aurkezteko epearen barruan lan bila dabiltzala egiaztatzeko administrazio eskudunak igorritako ziurtagiria eta prestaziorik jasotzen ez dutela egiaztatzeko Estatuko Enplegu Zerbitzuak (SEPE) igorritako ziurtagiria.
- b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten hautagaiak, egoera hori egiaztatzeko agiria eskariari erantsita.
- c) Familia ugariko kide diren hautagaiak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskaria aurkezten den egunean familia ugariko kide izan behar dira eta eskariari erantsi beharko diote familia ugariko kide direla egiaztatzeko agiria.

Seigarrena.– Hautagaiak onartzea eta erreklamazioak.

6.1.– Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, UPV/EHuko gerenteak erabakia emango du prozesuan onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrendarekin, baztertuen kasuan horretarako arrazoiak adierazita.

6.2.– Baztertutakoek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute eta, halakorik bada, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, eta horretarako epea hamar egun (10) balioudunekoa izango da, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita. Egitatezko errakuntzak



edozein unetan zuzenduko ahal izango dira, administrazioak bere kabuz edo interesdunek eskaturik.

6.3.- Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta horien inguruko erabakia hartu ondoren, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko.

Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartzen duen erabakian hamar egun balioduneko epe bat zabalduko da, eskatzaileek merezimenduak alega eta egiazta ditzaten.

6.4.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari; horretarako hilabeteko epea egongo da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.5.- Oinarri honetan aipatutako erabakiak erakundearen webgunean argitaratuko dira: www.ehu.eus

6.6.- Zerrenda horietan hautagaien izen-abizenak agertuko dira, NANaren, atzerriarren nortasun agiriaren, pasaportearen edo dokumentu baliokidearen ausazko lau digitu gehituta. Hala behar denean, ez onartzearen arrazoia agertuko da.

Zazpigarrena.- Epaimahaia.

7.1.- Izendapena.

Hautaketa probak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak UPV/EHUko gerentearen erabakiaren bidez izendatuko dira.

7.2.- Epaimahaien osaera.

Epaimahaiek kide kopuru bakoitia izango dute, eta, betiere, epaimahaiburu bat eta epaimahaikideak izango dituzte. Epaimahaikideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaiko kide guztiek ordezkio bana izango dute.

Epaimahaiak edo hautaketa organoak osatzean, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak bete beharko dira, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da; gainera, ezin izango dira epaimahaikide izan hautespen edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak, lan kontratudun behin-behinekoak, ez konfiantzako langileak. Hautaketa organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti, eta ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa organoetako partaide. Hori guztia bat etorrita urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzekoak, 60. artikuluan zehaztutakoarekin. Era berean, ezin izango dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa probetarako hautagaiak prestatzen ibilitako plantillako langile finkoak edo karrerako funtzionarioak.

Epaimahaia osatzen duten guztiek izan beharko dute deialdian ateratako plazetarako eskatzen den titulazioaren maila berekoa edo goragokoa, eta gainera administrazio publikoko langile finkoak edo karrerako funtzionarioak izan beharko dute. Epaimahaikide gehienak ezingo dira izan hautaketa plazaren kategoria edo espezialitate bereko langileak.



Zailtasun teknikoengatik edo bestelakoengatik hala komeni denean, epaimahaiek aholkularien laguntza baliatu ahal izango dute. Aholkulariok beren espezialitate teknikoaz baino ez diote lagunduko epaimahaiari, eta hitza izango dute, baina ez botorik.

Aholkulari espezialisten izendapena iragarki baten bidez argitaratuko da erakundearen webgunean.

7.3.– Abstentzioa eta errekusazioa.

Epaimahaikideak eta aholkulariak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta deialdia egin duen agintariari emango diote horren berri, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean badaude (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Era berean, abstenituko dira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautagaiak trebatzen aritu badira deialdiko plazen edo plazen kategoria bereko edo pareko kategoriako hautaketa probetarako, edo epe horretan moduren batean kolaboratu badute deialdiko plazen kategoriako oposizioetarako prestakuntza ematen duten zentroekin.

Epaimahaia eratzeko egiten den bileran, epaimahaiko buruak epaimahaikideei eskatuko die adierazpen formal baten bidez ziurtatu dezaten ez daudela halako egoeraren batean. Adierazpen hori bera egin beharko dute aholkulari espezialistek ere.

Era berean, epaimahaikideak, aholkulariak eta laguntzaileak goian aipatutako egoeretakoren batean daudenean, interesdunek errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikulua babespenean eta 24. artikuluan zehaztutako prozedura betez (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

7.4.– Jarduteko arauak.

Epaimahaiek beti jokatu dute administrazio prozedurari buruzko legeetan kide anitzeko organoentzat ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, epaimahaia bilduko da epaimahaiko buruaren aginduz idazkariak horretarako deia egiten duenean. Epaimahaia balioz eratzeko ezinbestekoa izango da epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaiko kideen eta ordezkioen karguak hutsik baleude edo pertsona horiek kanpoan edo gaixorik baleude, edota arrazoi legal batengatik epaimahaian ezin balira egon, antzinasun eta adin handieneko epaimahaikideak izango lirateke ordezkioak, hurrenkera horretan.

Erabakiak bertaratutako botoen gehiengoaz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiko buruaren kalitate botoarekin hautsiko dira.

Epaimahaiak gardentasun printzipioari jarraituz arituko dira.

Kalifikazioetan eraginik daukan erabakirik hartuz gero, erabaki horiek guztiak jasota ageri beharko dira bileretako aktetan.

Epaimahaiaren erabakien kontra egin ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

7.5.– Epaimahaiaren ahalmenak.

Epaimahaikideek erabateko autonomia funtzionalaz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduta eta objektibotasuna bermatzeko erantzukizuna beren gain hartuta.

Bestalde, ordenamendu juridikoari jarraituz, oinarri hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza eta gorabehera guztiak argituko dituzte, prozesu bakoitza zuzen betetzeko behar diren



erabakiak hartu, eta irizpideak ezarriko dituzte deialdietan jasota ez dauden kasuak sortzen direnean.

Epaimahaiek, prozesuaren edozein unetan, deialdian eskatutako betekizunen egiaztagiriak eskatu ahal izango dizkiete hautagaiei. Epaimahaiak helduko balira jakitera hautagairen batek ez duela baldintza bat edo gehiago betetzen, lehendabizi interesdunari entzungo liokete, eta gero, hala badagokio, pertsona hori hautaketa prozesutik kanporatzeko proposamen arrazoitua helarazi beharko liokete hautagai onartuen behin betiko zerrenda onartu duen organoari, eta, era berean, hautagaiak eskarian emandako datu okerrak edo faltsuak jakinaraziko lizkiokete, dagokien ondorioei begira. Administrazioaren organo eskudunaren erabakiaren kontra administrazioarekiko kasuan kasuko errekursoak jarri ahal izango dira.

Epaimahaien erabakiak lotesleak dira administrazioarentzat, nahiz eta administrazioak, egoki deritzonean, berrikusi ahal izango dituen erabaki horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 106. artikulua eta hurrengoak). Hori gertatzen denean, berriz egin beharko dira kasuan kasuko tramiteak.

7.6.- Egoitza.

Jakinarazpen eta gainontzeko gorabeheretarako, epaimahaien egoitza hau izango da: Bibliotekako eraikina, Pertsonaleko Gerenteordetza, Sarriena auzoa, z.g., 48940 Leioa.

7.7.- Zerbitzu ordainak.

Epaimahaietako kideek zerbitzu ordainak jasoko dituzte egindako lanengatik, bertaratzea barne, arlo horretan indarrean dauden arauak jarraituz.

Zortzigarrena.- Hautaketarako prozedura.

8.1.- Lehen oinarrian adierazi bezala, kategoria eta espezialitateko deialdi espezifikoak, hala ohiko prozesutik datozenak nola egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozenak, merezimenduen lehiaketa erabiltzaile egingo dira, eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak betetzen direla bermatuko da.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek oinarri orokor hauek osatu eta garatuko dituzte. Oinarri orokor hauek arautuko dute oinarri espezifikoetan beste era batera arautzen ez den guztia.

Hautaketa prozesu bakoitzeko zehaztasunak (plazaren izaera eta ezaugarriak, eduki beharreko titulazioa eta lehiaketa faseko merezimenduen balorazioa eta egiaztatzea), prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

8.2.- Merezimendu lehiaketaren bidezko hautaketa sisteman hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, merezimendu bakoitzari puntuazioa esleituz, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera.

Deialdi bakoitzean, merezimenduen baremoak atal hauek izango ditu:

- A) merezimendu profesionalak.
- B) merezimendu akademikoak.

Merezimendu horiek kontuan hartuko dira bakar-bakarrik eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortu direnean, 8.3 oinarrian aipatutako merezimenduaren kasuan izan ezik.



Ez da baloratuko, inolaz ere, epez kanpo aurkeztu eta egiaztatutako merezimendurik.

8.3.– Euskara

Hautagaiek, nahi izanez gero, euskara maila egiaztatu ahal izango dute, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez parte hartzen ari diren hautaketa prozesuaren barruan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba bakar batera aurkeztu ahal izango dira LEP honen barruan, hainbat deialdi espezifikotan parte hartzen badute ere.

AZPkoen Erregistroan eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden egiaztagiriak ez dira aurkeztu beharko berriro, baina alegatu egin beharko dira.

Erregistro horretan ez dagoen euskarako beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu egin beharko da, betiere baliozkotuta badago azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehaztutakoaren arabera (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena), eta titulu edo ziurtagiri hori lortu bada hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko LEP honen deialdi espezifikoen barruan deitutako proben behin betiko emaitzak argitaratu baino lehen.

Bestalde, hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi izanez gero apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena), kasuan kasuko ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.

Lortu ahal izango diren puntuazioak oinarri espezifikoetan zehaztuko dira, puntuazio osoarekiko ehuneko hauen arabera:

Eskalan edo kategorian 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE edo goragokoa izateagatik, % 5.

Eskalan edo kategorian 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik, % 5.
2. HE edo goragokoa izateagatik, % 10.

Eskalan edo kategorian 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik, % 5.
2. HE izateagatik, % 10.
3. HE edo goragokoa izateagatik, % 15.

Eskalan edo kategorian 4. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik, % 5.
2. HE izateagatik, % 10.
3. HE izateagatik, % 15.
4. HE izateagatik, % 20.

8.4.– Merezimendu lehiaketaren hasiera eta garapena.

Lehiaketan merezimenduak baloratuko dira deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutako baremoen arabera: puntuak esleituko zaizkio merezimenduen atal bakoitzari, eta atal guztietako puntuen batura izango da balorazio orokorra.



8.4.1.- Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumentuak aurkeztea:

Interesdunek dokumentu hauen fotokopia aurkeztu behar dute, 5.3 oinarriari jarraikiz:

1.1.- Merezimendu moduan alegatutako titulazio akademikoak: titulua, edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren dokumentua, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu bat.

1.2.- Lan esperientzia: betetako zerbitzuak baloratu ahal izango dira deialdi espezifiko guztietan, bai enplegua egonkortzeko ezohiko prozesutik datozenetan, bai ohiko prozesutik datozenetan.

UPV/EHUK ofizioz erantsiko ditu ziurtagiriak unibertsitatean lanean egon diren hautagaien kasuan.

Gainerako administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko administrazioak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, non zehaztu beharko diren lan egindako aldiak eta taldea, kategoria eta espezialitatea edo, hala badagokio, eskala. Horrez gain, lanpostuaren edo lanpostuen monografia edo eginkizunen ziurtagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko langileen arloko zuzendaritzak emandakoa.

1.3.- Hizkuntzak.

Bakarrik baloratuko dira, maila bakoitzean, UPV/EHUKo errektoreak 2012ko martxoaren 8an emandako Erabakian aipatutako titulu eta ziurtagiriak (hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzko erabakia, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez eguneratua), edo erabaki horren ordezkio arautegian aipatutakoak.

Balorazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

8.4.2.- Dokumentazioa ez aurkeztea:

Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuak 6.3 oinarrian adierazitako epean aurkeztu ezean, ez dira merezimenduak baloratuko. Era berean, egiaztagiriak aztertuta ikusiz gero hautagaiak ez duela alegatutako merezimenduren bat, ez da baloratuko merezimendu hori, baina bai gainerako guztiak.

39/2015 Legearen 68. artikulua adierazitakoarekin bat etorruta, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumenturik falta bada, UPV/EHUK iragarki bat argitaratuko du webgunean interesdunei jakinarazteko hamar (10) egun baliouduneko epea daukatela falta diren dokumentuak bidaltzeko, eta, horrela egin ezean, merezimenduak ez direla kontuan hartuko lehiaketa fasean.

8.5.- Merezimenduen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, hautagaiak zazpi (7) egun baliouduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazio horiek behin ebatzita, merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko da.



8.6.– Deialdi espezifiko bakoitzeko azken kalifikazioa.

Deialdi espezifiko bakoitzeko azken kalifikazioa izango da lehiaketako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura. Kalifikazioak unibertsitateko webgunean argitaratuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran, bakoitzari dagozkion izen-deiturekin eta nortasun agiriko, atzeritarren identifikazio zenbakiko, pasaporteko edo pareko dokumentuko ausazko lau zifrarekin.

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:

- 1) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazio lan esperientzian, deialdiko talde, kategoria eta espezialitate berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazio lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 4) Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.
- 5) Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuen atalean.
- 6) Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.
- 7) Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.
- 8) Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez-ofizialen atalean.
- 9) Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazio lan talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 10) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

Behin-behineko azken kalifikazioarekin batera deialdi espezifiko bakoitzean eskaintzen den lanpostuen zerrenda argitaratuko da.

Eskaintako lanpostuen zerrendan zehaztuta egongo dira: kategoria, espezialitatea, prozesua (kategoria eta espezialitate berean prozesu bat baino gehiago egonez gero), lanpostuaren izena, atxikipenez dagoen zentro organikoa, lanpostua zein udalerritan dagoen, ordainketa maila, hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanaldia eta lanpostuaren betebeharrak espezifikoak.

Prozesuko behin-behineko azken kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, argitara emango dira deialdi espezifiko bakoitzeko behin betiko kalifikazioak.

Kontuan hartuta plaza asko eskaintzen direla eta ustez eskari ugari egongo direla, eta abuztuan zaila denez epeak betetzea, hil hori balio gabetzat joko da epeak zenbatzeari dagokionez.



8.7.– Lanpostuak aukeratzea.

Deialdi espezifiko bakoitzeko behin betiko azken kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, lanpostuak aukeratu beharko dira, eta horretarako epea zazpi (7) egun baliodunekoa izango da.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen bi prozesuetan parte hartu badute, hau da, egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdietan zein ohiko prozesutik datozen deialdietan parte hartu badute, lanpostuen zerrenda bakarra osatuko dute, nahi izanez gero, prozesu bateko zein besteko lanpostuak tartekatuta, eta beren lehentasunen araberrako hurrenkeran jarriko dituzte nahi dituzten lanpostuak, betiere kontuan izanda lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta betebeharrak espezifikoak (halakorik badute) bete behar dituztela.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen prozesu bietako bakarrean parte hartu badute, kasuan kasuko deialdiko lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu, dagokien kategoria eta espezialitatekoak.

8.7.1.– Lanpostua aukeratzeko eskariak.

Lanpostuak bitarteko elektronikoen bidez eskatu behar dira, Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztatzea eskuratuko da.

Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikoak egiaztatzeke agiria aurkeztu behar da.

8.7 oinarri honetan adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikoak egiaztatzeke agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

8.7.2.– Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonen galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak.

Bederatzigarrena.– Hautatuen zerrenda. Lanpostuak aukeratzea eta esleitzea.

9.1.– Lanpostuak hautatzeko epea amaituta, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda egingo da, kontuan hartuta hautagai bakoitzaren puntuazio hurrenkera eta adierazitako lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte. Hamar egun baliodunekoa epea irekiko da erreklamazioak aurkezteke eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaien eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikoetarako.

Erreklamazioetarako epea amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Epaimahaiak ezin izango ditu deialdian ateratako plazak baino hautagai gehiago aukeratu, eta muga hori gainditzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Dena den, eta bat etorrita urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 61.8 artikuluan zehaztutakoarekin eta deitutako plaza huts guztiak bete egiten direla bermatzeko, deialdi espezifikoetan jasota egon behar da deialdia egin duen organoak eskatu egin behar diola hautaketa organoari hautagaien zerrenda osagarri bat, proposatutako hautagaien gain-lan kontratudun langile finkoak izendatzeko; izan ere, kontuan hartuta egonkortasunerako prozesua berezia dela eta parte hartzea oso handia izango dela, saihestu egin nahi da lanpostuak hutsik geratzea arrazoi hauengatik: aukeratzeko hautagaien lan kontratua sinatu aurretik lanpostuari uko egin diotelako, aurkeztutako dokumentuetan ikusten delako



hautagaiek ez dituztela betetzen eskatutako baldintzak, edo hautagaietako batzuek ezin dituztelako hartu lanpostuak ezusteko arrazoiengatik.

Horrez gain, kasu batzuetan plaza hutsak betetzeko esleipen osagarriak egingo dira. Esleipen hauek behin baino ez dira egingo eta, egin ere, kasu hauetan egingo dira:

- a) Lan kontratua sinatzean lanpostua gordeta izateko eskubiderik ez daukan eszedentzia eskatuz gero, hutsik geratzen den lanpostua esleituko da.
- b) Lan kontratudun langile finkoei beste kategoria bateko lanpostua esleitzen zaienean, titular izanik hutsik utzi dituzten lanpostuak esleituko dira.
- c) Plaza huts berririk sortu bada, deialdian zehaztutako plaza kopuruari plaza gehiago gehitu ahal izango zaio, gehienez ehuneko hamar.

Aurreko letretan zehaztutako lanpostuen esleipen berriak prozedurari jarraituz eta ondorengo irizpideei jarraituz egingo dira:

- a) Lanpostuak betetzeko sistema lehiaketa izatea.
- b) Lanpostuan lan kontratudun langile finkorik ez egotea behin-behineko atxikipenean edo eginkizunen behin-behineko esleipenean osasun arrazoiengatik.
- c) Lanpostuen zerrendan ez agertzea amortizatzeko edo desagertzeko bezala.

Plaza huts berriak ohiko prozesuan sartu eta esleituko dira, lanpostuen zerrendan zehaztuta daukaten kategoria eta espezialitate berean.

Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetara deituko den pertsona kopurua epaimahaiak zehaztutako kopuru bera edo txikiagoa izango da, betiere, hurrenkerari jarraituz eta kontuan hartuta hizkuntza eskakizuna. Kopuru horrek bermatu egin behar du aukeran dauden plaza guztiak esleitu egingo direla.

Hautaketa prozedurari amaiera ematen dion ekintza arrazoitua izan beharko da. Bere diskrezionalitate tekniko erabiliz balorazioak egiten dituenean, epaimahaiak legeen, arautegien eta deialdiaren oinarrien arabera emango du bere ekintzen arrazoibidea.

9.2.- Lanpostuak Gerentziak esleituko ditu, hautatuko pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendari jarraituta, betiere kontuan hartuta aurreko paragrafoetan aipatutako esleipen osagarriak.

Hamargarrena.- Dokumentazioa aurkeztea.

10.1.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

10.1.1.- Hautatuen behin betiko zerrendako pertsonen honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte beren gaitasuna egiaztatzeko eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko:

- a) Indarreko NANaren, pasaportearen edo nazionalitatea egiaztatzen duen beste edozein dokumenturen fotokopia, ez bada UPV/EHUko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.
- b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 43. artikuluan zehazten diren tituluak (deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutakoak kasu bakoitzerako), edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen agiria edo ikasketak osorik egin eta



gainditu izanaren ziurtagiri akademikoa edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofiziala, ez bada UPV/EHUko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.

c) Atzerriko hautagaiak administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute, esateko zein dokumentu zehatz aurkeztu behar duten, beren egoera dela eta.

d) Zinpeko aitorpena edo promesa, non interesdunak ziurtatzen duen ez duela desgaitasunik funtzio publikoak betetzeko eta ez dela diziplina espediente baten bidez aldentzea izan administrazio publikoetatik, eta ez dagoela legezko desgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren inongo egoeratan (53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Langileen Bateraezintasunei buruzkoa eta 598/1985 ED, apirilaren 30ekoa, Estatuaren Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta beraiei menden dauden ente, erakunde eta enpresen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoa).

Espainiar nazionalitatea ez dutenek zinpeko aitorpena edo promesa aurkeztu beharko dute, non ziurtatzen duten ez daukatela diziplina zehapenik edo kondena penalik edo horren parekorik, beren estatuko funtzio publikora sartzea eragozten dienik.

e) UPV/EHUko Osasun Zerbitzuak emandako medikuaren ziurtagiria, dioena interesdunak ez duela gaixotasunik edo akats fisikorik, eskatu duen lanpostuko zereginak betetzea eragozten dionik.

f) Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako baldintzen egiaztagiria, besterik eskatuko balitz.

10.1.2.- Oinarri honetako aurreko puntuetan adierazitako dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa daukaten dokumentuak (aldaeiznak izan daitezten), edo kopia konpultsatuak. Kopia horietan, balioa izan dezaten, informazio hau agertu beharko da: konpultsaren data eta dokumentua konpultsatu duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

10.1.3.- Hautagaiak ezin baditu dokumentu horiek aurkeztu eta hala justifikatzen badu, zuzenbidean onartzen den beste edozein modutan frogatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

10.2.- Dokumentuak aurkezteko tokia eta epea.

Aipatutako dokumentuak hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, aukeratuko hautagaien behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, Pertsonaleko Gerenteordetzan (UPV/EHUko Bibliotekaren eraikina, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa).

10.3.- Dokumentazioa ez aurkeztea.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, hautagaiak epe horretan dokumentazioa aurkezten ez badute edo dagozkien zereginak betetzeko eska daitekeen gaitasun fisiko edo psikikorik ez badute, ezingo dira kontratatu eta haien ekintza guztiak deuseztatuta geratuko dira, eskarian gezurra esateagatik eska lekiekeen erantzukizuna ezertan eragotzi gabe.

Halakoetan, epaimahaiak ondoren sailkatutako pertsona proposatuko du, prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrendako hurrenkerari jarraituta, zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera. Horretarako, epaimahaiak hautatutzat joko ditu aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hutsik geratu diren plaza adina hautagai.



Hamaikagarrena.- Lan kontratudun langile finkoak kontratatzea, plaza hutsak esleitzea eta lan kontratua formalizatzea.

Deialdi espezifikoak amaitu ondoren, hautatuak izan diren eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu dituzten pertsonen lan kontratua egingo zaie, plantillako langile finko gisa, hilabeteko (1) epean gehienez ere, 10.2 oinarrian ezarritako epea amaitzen denetik.

Hamabigarrena.- Komunikazioak eta gorabeherak.

12.1.- Hautaketa prozesu bakoitzari lotutako egintza eta akordio guztiak erakundearen webgunean argitaratuko dira.

Argitaratze horiek lotesleak izango dira lehiaketako deialdietarako. Era berean, argitaratze horien datak emango die hasiera deialdian ezarritako epeei eta oinarrien eta epaimahaiaren ohiko jardunaren arabera ireki beharko diren gainerako epe guztiei.

12.2.- Hautagaiak epaimahaiari eta UPV/EHuko organo eskudunari helarazi ahal izango diete epaimahaiko kideen edo gainerako hautagaien ekintzen inguruan sor litezkeen gorabeheren berri. Era berean, hautaketa prozesuaren inguruko erreklamazioak, kexak, eskariak edo iradokizunak ere helarazi ahal izango dizkiete.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalak babestea hautaketa prozesuaren kudeaketan.

13.1.- Oinarri hauen xede den edozein hautaketa prozesutan parte hartzeak berez dakar hautagaiak baimena ematea eskarian jasotako bere datu pertsonalak –izen-abizenak, NANA eta prestakuntza maila– erabil daitezen aldizkari ofizialetan, iragarki oholetan, webgunean eta, oro har, hautaketa prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzak komunikatzeko erabilitako beste edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPeK edo erakunde eskudunak euskara mailaren akreditazioa egiaztatzean, eta epaimahaiak berak edo hark aukeratutako erakundeak edo enpresak hautaketa prozesua zuzen prestatzeko eta egiteko beharrezkoak diren datuak erabil ditzan ere.

Oinarri hauen xede diren hautaketa prozesuak publikotasun printzipioak gobernatzen ditu; beraz, eskaria ez da onartuko, baldin eta hautagaiak bere datuak ematea onartzen ez badu aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

13.2.- Hautaketa prozesuaren gestioan, datu pertsonalak «Lanpostuen aukeraketa eta hornitzea» eta «Langileen espedienteak» izeneko fitxategietan tratatuko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren erabakiaz sortuak biak (Unibertsitateko datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko Erabakia, 2007ko apirilaren 11ko EHAA). Bi fitxategi horien administrazio organo arduraduna Euskal Herriko Unibertsitatea bera izango da, eta bertako datuak babesteko ordezkariarengana jo beharko da datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak baliatu nahi izanez gero.

13.3.- Eskariak aurkezteko era guztietan (bosgarren oinarrian aipatuak) gai horri buruzko informazio klausula bat jarriko da.

13.4.- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioako langileek, epaimahaietako kideek eta horiei laguntasuna emango dieten adituek (aditurik egonez gero) isilpean gordeko dituzte hautaketa prozesuaren gestioan zehar euren eskuetara heltzen diren datu pertsonalak.



13.5.- Oinarriei jarraituz deialdi espezifikokoetan argitara ematen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan gutxieneko datu pertsonalak agertuko dira, publikotasun printzipioa betetzeko beharrezkoak direnak baino ez. Zerrenda horiek prozesua amaitu arte egongo dira ikusgai eta, era berean, erreklamazioak edo errekursoak jartzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora guztian.

Zerrenda horietan klausula bat jarriko da, esateko datu pertsonalak dauzkatela, zerrendak bete egiten duela datuak babesteko alorrean indarreko legeriak dioena, eta zerrendaren helburu bakarra dela hautaketa prozesuko kasuan kasuko fasearen berri ematea eta parte hartzaileak jakinaren gainean jartzea. Era berean, paragrafo batean adieraziko da zerrenda horiek ez direla egongo herritarren esku; ezingo direla kopia, ez osorik ez zati batean; eta ezingo direla ez transmititu ez erregistratu informazioa berreskuratzeko inolako sistemarik erabilita, baldin eta interesdunek horretarako baimenik ematen ez badute.

AZKEN XEDAPENA.- Oinarriak indarrean sartzea.

Oinarri orokor hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.



II. ERANSKINA

GINARRI OROKORRAK: FUNTZIONARIOAK

Lehenengoa.- Helburua.

1.1.- UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko lan eskaintza publikoa onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.), lotua dagoena ekainaren 27ko 3/2017 Legean (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) eta 6/2018 Legean (2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) aurreikusitako tasa gehigarriari, bai eta 2019. urteko birjartze tasari ere. Era berean, azken erabaki horren bidez barne promozioa onartu zen.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.), eta UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez 2021. urteko lan eskaintza publikoa (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.).

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriari buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak zehazten du hirugarren prozesu bat egongo dela behin-behineko enplegua egonkortzeko, ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 19.Bat.6 artikuluan eta uztailearen 3ko 6/2018 Legeko 19.Bat.9 artikuluan aipatutako gehituko zaiena (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea eta 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea, hurrenez hurren). Hirugarren prozesu horretan sartuko dira administrazio publikoetako plaza estruktural guztiak baldin eta, aurrekontuetan diruz hornituta egonik, gutxien dela 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan behin-behinean eta etenik gabe beteta egon badira.

Gainera, lege horrexen seigarren xedapen gehigarrian, irizpideak zehazten dira iraupen luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko ezohiko deialdietarako. Horrela, legearen arabera, administrazio publikoek, salbuespenaz eta TREBEPEko 61.6 eta 61.7 artikuluei jarraituz, lehiaketara aterako dituzte 2.1 artikuluko baldintzak betetzen dituzten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago behin-behineko langileekin etengabe beteak egon diren plazarak. Horri gehitu behar zaio lege bereko zortzigarren xedapen gehigarriak dioena, hau da, seigarren xedapen gehigarrian aipatutako egonkortze prozesuetan, gainera, deialdian aterako direla egiturazkoak diren eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik behin-behineko langile batekin beteta egon diren lanpostu hutsak.

Oinarri hauen bidez arau orokorrak ezarriko dira Lan Eskaintza Publikoa gauzatzeko UPV/EHUk egingo dituen funtzionarioen plazen deialdi espezifikoaren alderdi komunak gidatzeko. Hautaketa prozesuak egingo dira deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan adieraziko diren plazarak betetzeko, dagozkien kupoak gordeta, betiere enplegu publikora iristeko printzipio gidariekin bat etorruta.

Adierazitakoagatik guztiagatik, bi prozesu mota bereizi behar dira:

Prozesu bakoitzean deialdi espezifikoak egingo dira eskalaka eta, egoki denean, plazararako prozesu espezifikoak, betiere horretarako ezarritako lege baldintzak betetzen dituen lanpostu hutsik badago: Eskala bakoitzean egingo diren deialdi espezifiko horiek eta, egoki denean, prozesu espezifikoak, kasuan kasuko titulazio taldearen arabera banatuko dira.



- 1) Ohiko prozesua lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistemaren bidez egingo da.

Prozesu honetan bi modalitate egongo dira, eta horietako bakoitzean bi txanda:

1.1.- modalitate orokorra:

- a) txanda librea
- b) desgaitasuna duten pertsonentzako txanda

1.2.- barne promozioeko modalitatea:

- a) txanda librea
- b) desgaitasuna duten pertsonentzako txanda

Barne promozioak bere oinarri orokor propioak izango ditu, eta eskaletako deialdi espezifikoak ez dira egingo modalitate orokorrekin batera.

- 2) Enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko prozesua merezimendu lehiaketaren bidez egingo da, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeko seigarren eta zortzigarren xedapen iragankorretan adierazitakoarekin bat etorrira.

Prozesu honetan txanda eta modalitate bakarra egongo dira: orokorra eta librea.

1.2.- Oinarri orokor hauek eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek arautuko dute prozesua, eta lotesleak dira administrazioarentzat, epaimahaientzat eta hautagaiarentzat. Horrek, hala ere, ez du eragotziko, behar izanez gero, oinarriok berraztertzea, administrazioak bere kabuz edo norbaitek errekurtsoa jarrita. Oinarrietako testuak, orokorretakoak zein espezifikoetakoak, bat ez badatoz euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, gaztelaniazkoa izango da nagusi.

1.3.- Halaber, konpromisoa adierazten da generoen arteko aukera berdintasunarekin, langileak Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzura sartzeko prozeduraren beraren oinarrian baitago.

Bigarrena.- Plazak banatzeko arau orokorrak.

2.1.- UPV/EHUren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoak prozesu orokor bakar batean egingo dira, eta deitutako plaza guztietatik ehuneko zazpi (% 7) gordeko dira desgaitasuna duten pertsonen betetzeko, eta halakotzat hartuko dira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikulua 2. paragrafoan definitutakoak, betiere probak gainditu eta egiaztatzen badute 5.2.e) oinarrian adierazitako desgaitasun maila eta dagozkien zereginak betetzeko gaitasuna.

Gutxieneko ehuneko zazpi (% 7) hori gordetzeko orduan, eskainitako plazen ehuneko bi (% 2) gutxienez adimen desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonen bete beharko dute eta eskainitako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenak. Hori guztia egingo da betetzeko Legedintzako 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (59. artikulua).

Dena dela, abenduaren 28ko 20/2021 Legeko seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien babesean enplegua egonkortzeko egingo den ezohiko prozesuaren kasuan, salbuespenezko prozesu bat denez, behin bakarrik egingo dena, plazen deialdia orokorra izango da, modu berean baloratzeko parte hartzaile guztien merezimenduak. Hortaz, prozesu horretan txanda bakarra egingo da (librea) eta modalitate bakarra (orokorra).



Beraz, UPV/EHUren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEP bateratuko ohiko prozesua osatzen duten plaza guztien ehuneko zazpi (% 7) gordeko da gutxienez.

Aurreko ataletan aipatutako erreserba funtzionarioen talde eta eskalatan aplikatu da, kasu bakoitzean oinarri espezifikoek zehazten duten banaketaren arabera.

Bermatuko da desgaitasuna duten pertsonen gainerako hautagaien baldintza berdinetan egingo dituztela probak.

2.2.- Hautagaiak eskariak aurkeztu ahal izango dituzte interesatzen zaizkien eskaletako deialdi espezifikoetarako, kontuan hartuta hala egonkortasunerako ezohiko prozesua nola ohiko prozesua. Deialdi espezifiko bakoitzean txanda bakarrean eta modalitate bakarrean aurkeztu ahal izango dira -eskala eta, halakorik egonez gero, prozesu bereko plazetarako-, eta eskarian adierazi beharko dute zeinetara aurkezten diren. Aukera zehaztu ezean edo eskala eta, halakorik egonez gero, prozesu bererako aukera bat baino gehiago jarritz gero, hautagaiak txanda libre aukeratu duela ulertuko da.

2.3.- Desgaitasuna duten pertsonentzako txandan gordetako plazak agortuz gero ariketak gainditu dituzten pertsonen kopurua gordetako plazak baino gehiago izan direlako, probak gainditu eta plazarik lortu ez dutenek kasuan kasuko txanda libreko plazak lortu ahal izango dituzte puntuen araberrako hurrenkerari jarraikiz.

2.4.- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandako plazak bete gabe geratuz gero, bai hautagairik ez dagoelako, bai probak gainditu ez dituztelako, plaza horiek ohiko prozesuko txanda libreari gehituko zaizkio.

Barne promozioako plazak bete gabe geratuz gero, hutsik geratu diren plazak txanda librera pasatuko dira, oinarri orokorretan adierazitako moduan.

Hirugarrena.- Hautaketarako baldintza orokorrak.

3.1.- Lanpostua jabetzan hartzean, hautatutako pertsonak Euskal Herriko Unibertsitateko karrerako funtzionarioak izango dira, eta arlo horretan indarrean dauden xedapenak emandako eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte.

3.2.- Prozesu honen ondorioz UPV/EHUko funtzionario bihurtzen direnei alta emango zaie Gizarte Segurantzari eta, hala behar izanez gero, bertan afiliatuko dira, dagozkien lanpostuak jabetzan hartzen dituzte egunetik aurrera.

3.3.- Nolanahi ere, lanpostuen hizkuntza eskakizunak derrigortasun data gainditua badauka deialdia egiten denean, ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna oinarri hauetan zehaztuta dagoen moduan egiaztatua izatea lanpostua betetzeko. Era berean jokatu da lanpostuen zerrendan plaza horiek zehaztuta dituzten gainontzeko betebeharrak espezifikoekin.

Laugarrena.- Hautagaiak bete beharreko baldintzak.

4.1.- Hautagaiak hurrengo puntuetan adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen -oinarri hauen 8.4 atalean ezarritakoaren arabera hizkuntza eskakizuna egiaztatzei buruzkoa salbuetsita-, eta lanposturik esleitzuz gero, lanpostua jabetzan hartu arte mantendu beharko dituzte baldintzak.



4.2.– Lehiaketa-oposizio honetako probetan onartua izateko baldintzak honako hauek dira:

a) Hauetakoren bat betetzea:

- Europar Batasuneko herritarra izatea edo EBko herritar baten ezkontidea izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), edo halako herritar baten edo haren ezkontidearen ondorengoa izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, haien pentsura bizi badira.
- Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenak direla bide, langileen zirkulazio askea aplikatzen den herrialderen bateko herritarra izatea.
- Enplegu publikorako eskubidea duen atzerritarra izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testuateginaren arabera (5/2015 ED, urriaren 30ekoa).

b) Hamasei (16) urte betetik izatea eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.

c) Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testuategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Hautaketa prozesua behin gaitasuna, hautagaiak gaitasun funtzionala duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori bete beharko du lanpostuaz jabetzeko.

d) Diziiplina espediente baten ondorioz desgaitatutik ez izatea funtzio publikoak betetzeko edo aldentuta ez egotea administrazio publikoen zerbitzutik. Beste estatu batzuetako nazionalitatea izanez gero, desgaitatuta edo pareko egoeran ez egotea, eta diziiplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzea eragozten dionik.

e) Deialdian eskatutako titulu ofiziala edo homologatua edukitzea edo ordainduta izatea titulua jasotzeko eskubideak, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria edukitzea, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofizial bat izatea, kasu guztietan eskariak aurkezteko epearen barruan. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala izatea.

f) Indarreko legeriari jarraituz, legeko ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren egoera batean ez egotea; edozelan ere, legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea errespetatuko da.

g) Kasuan kasuko deialdian izena emateko ordaindu beharreko tasa ordainduta izatea, indarreko arauari eta haien eguneratzei jarraituz, 5.4 oinarrian aipatutako salbuespenarekin. Zenbatekoak deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

h) Lanpostuen zerrendak dena delako plaza edo postuetarako zehaztutako gainerako betebeharrak guztiak betetzea, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitakoaren arabera.

i) Ez izatea karrerako funtzionarioa UPV/EHuko eskala berean.



Bosgarrena.- Eskariak aurkeztea.

5.1.- Eskariak aurkezteko epea eta era.

Oinarri orokor hauetatik sortutako deialdi espezifikoetan parte hartzeko eskariak hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, bide hauetako bat erabiliz:

a) Bitarteko elektronikoen bidez/Internet bidez, www.ehu.eus helbidean egongo den ereduaren oinarri hauetako 5.2 atalean zehazten den bezala betez eta bidaliz. Bide hau aukeratuz gero, eskatzaileak irakurrargiria eskuratuko du erreferentzia zenbaki batekin, eta tasak ordaintzeko xehetasunekin.

b) Oinarri hauetako 5.3 atalean adierazitako lekuetan eskuragarri egongo den eskari orria beteta, bat etorrita oinarri hauetako 5.2 atalean zehaztutakoarekin.

5.2.- Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek honakoak bete beharko dituzte, parte hartu nahi duten prozesu eta deialdi bakoitzean:

1) Eskariko atal guztiak bete, eta aurkeztu beharreko agiriak erantsi.

Adierazitako epearen barruan baldintzak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du, euskarako eskakizuna egiaztatzeko aurreikusitakoaren kasuan izan ezik.

2) Eskaria epe barruan aurkeztu, eta

3) Tasak ordaindu. Era berean, hautagaiek baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere; salbuespena da 8.4 oinarrian zehaztutako baldintza.

Eskaritan honako datu hauek eman beharko ditu hautagaiek:

a) Datu pertsonalak, prozesua behar bezala gestiona dadin.

b) Ohiko prozesuko txanda librean eskatzaileak zehaztu beharko du zein txandatan nahi duen parte hartu, oinarri espezifikoaren arabera:

- txanda librean
- desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan

Deialdi espezifiko bakoitzean txanda bakarraren bidez hartu ahal izango da parte, oinarri hauetako 2.3 ataleko salbuespenarekin.

c) Zein eskalatan hartu nahi den parte.

d) Ohiko prozesuan, oposizio faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz ala gaztelaniaz. Atal hori bete ezean, probak gaztelaniaz egitea aukeratu dela ulertuko da.

e) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izan beharko dute, kasuan kasuko administrazioko organo eskudunak aitortua (foru aldundiko organo eskudunak, IMSERSOK edo pareko organoak), eta aitortzen horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Aipatutako baldintza egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da eskariari erantsita.



Era berean, adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek egoera hori aitortua izan behar dute, eta aitorten horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Baldintza hori egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da kasuan kasuko administrazioako organo eskudunak emana (foru aldundiko organo eskudunak, IMSERSOK edo pareko organoak); eskariari erantsita aurkeztu beharko da.

Epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu desgaitasuna duten hautagaiek –eskarian hala adierazi badute– hautaketa prozesuko probetan parte hartu ahal izan dezaten gainerako hautagaien baldintza berberetan, abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorriz (2271/2004 Errege Dekretua, Enplegu publikora sartzea eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak betetzea arautzen duena).

Desgaitasuna duten pertsonen beren eskarian zehaztu beharko dute ariketak egiteko beharrezkotzat hartzen dituzten egokitzapen teknikoak eta zentzuzko egokitzapenak, hautaketa prozesuaren denbora eta bitartekoak aintzat hartuta, berdintasun baldintzetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Hori guztia proben izaera hutsaldu gabe egingo da, haien helburua baita hautagaien gaitasuna baloratzeko eskuratu nahi duten plazaren zereginak betetzeko.

Epaimahaiak eskatutako egokitzapena bidezkoa den ala ez baloratu ahal izateko, interesdunak, eskariarekin batera, desgaitasun maila kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboaren kopia aurkeztu beharko du nahitaez. Bertan, aitortutako desgaitasun maila eragin duten gabezia iraunkorrek modu frogagarrian egiaztatu beharko dira, eta ondorio horietarako, ez da baliozkoa izango bestelako dokumenturik.

Denboraren egokitzapenean ariketak egiteko denbora gehiago emango da, ekainaren 9ko PRE-1822/2006 Aginduari jarraituz, zeinaren bidez irizpide orokorrak ezartzen diren desgaitasuna duten pertsonen sektore publikoan sartzeko hautaketa prozesuetan denbora gehigarria emateko.

Hautagai bakoitzaren behar espezifikoak aztertu ondoren, epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, halakoen beharra dagoen kasuetan.

f) Alegatutako titulazioa. Eskariari erantsi behar zaio honako agirien fotokopia: deialdian eskatutako titulua edo titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izanaren egiaztagiria, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofiziala.

g) Zinpeko adierazpena, hautagaiak adierazita baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere.

h) Tasak ordaindu izana.

i) Aukeran, eskarian adieraztea baliabide edo denbora egokitzapenik behar den probarako.

5.3.– Eskariak aurkezteko lekuak:

Eskariak aurkezteko bide nagusia UPV/EHuren Lan Eskaintzen Ataria da.

Lan Eskaintzen Ataria erabili ezean, eskaria UPV/EHuren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>) «Jasotzailea» atalean Gerentzia adierazita. Hori guztia bat etorriz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.e) artikuluan zehaztutakoarekin eta UPV/EHuko idazkari nagusiak 2021eko apirilaren 28an emandako Erabakiarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea



UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrira UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Eskaria behar bezala aurkeztu ondoren, eskari egileak ziurtagiria eskuratuko du.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. artikulua).

Lan Eskaintzen Atariaren bidez egindako eskariak ez dira beste bide honetatik aurkeztu behar. Dena dela, eskatzaileak tasa ordaindu badu sistemak ematen duen ordainagiria erabiltzeke, ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du.

5.4.- Eskariak aurkezteko ordaindu beharreko tasak:

Oinarri hauetako 5.2. h) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan (ikus 5.1 oinarria) ordaindu beharko dira, Kutxabanken.

Eskaria UPV/EHUko webgunearen bidez aurkezten dutenek (5.1.a) oinarria) «ordainketa pasabidearen» bitartez ordaindu ahal izango dituzte tasak, sisteman bertan zehazten diren baldintzak betez. Bestela, ordainketa Kutxabanken egin ahal izango dute.

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko da azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko kopurua.

Hautagaiei ez zaie tasen dirua itzuliko prozesutik kanporatuak badira beren jokabideagatik edo dokumentuen bidez ez egiaztatzeagatik benetan betetzen dituztela oinarrietan eskatutako baldintzak, nahiz eta hala egiten dutela ziurtatu eskariarekin batera aurkeztutako adierazpenean.

Eskariarekin batera azterketa egiteko tasa osorik ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskariak aurkezteko epean tasak ordaindu ezean, hautagaia prozeduratik kanpo geratuko da, oinarri hauetako 5.2.h) atalean prozesuan onartua izateko zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik.

Aurrekoa gorabehera, ordaindutako kopuruan ageriko akats nabarmena badago, akatsa zuzendu ahal izango da 6.2 oinarrian zehaztutako baldintzetan.



Tasa ordaindu eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; ezinbestekoa izango da eskaria behar den epean eta eran aurkeztea, 5.1 oinarrian zehazten den bezala.

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Enplegu bulegoetan lana bilatzeko izena emanda dauden eta inongo prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak. Horretarako, eskariarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: eskariak aurkezteko epearen barruan lan bila dabiltzala egiaztatzeko administrazio eskudunak igorritako ziurtagiria eta prestaziorik jasotzen ez dutela egiaztatzeko Estatuko Enplegu Zerbitzuak (SEPE) igorritako ziurtagiria.
- b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten hautagaiak, egoera hori egiaztatzeko agiria eskariari erantsita.
- c) Familia ugariko kide diren hautagaiak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskaria aurkezten den egunean familia ugariko kide izan behar dira eta eskariari erantsi beharko diote familia ugariko kide direla egiaztatzeko agiria.

Seigarrena.- Hautagaiak onartzea eta erreklamazioak.

6.1.- Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin, baztertuen kasuan horretarako arrazoiak adierazita.

6.2.- Baztertutakoek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute eta, halakorik bada, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, eta horretarako epea hamar egun (10) baliodunekoa izango da, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita. Egitatezko errakuntzak edozein unetan zuzenduko ahal izango dira, administrazioak bere kabuz edo interesdunek eskaturik.

6.3.- Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta horien inguruko erabakia hartu ondoren, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko.

Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartzen duen erabakian hamar egun balioduneko epe bat zabalduko da, egonkortasunerako ezohiko prozesuko deialdi espezifikoaren kasuan, eskatzaileek merezimenduak alega eta egiazta ditzaten.

Oposizio-lehiaketa bidezko deialdietan, probak egiteko eguna iritsi eta errekurtsioa ebatzi gabe badago, errekurtsioa jarri duten hautagaiek azterketa egin ahal izango dute; alabaina, errekurtsioa ezetsiz gero, azterketak ez du baliorik izango.

6.4.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari; horretarako hilabeteko epea egongo da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.5.- Oinarri honetan aipatutako erabakiak erakundearen webgunean argitaratuko dira: www.ehu.eus

6.6.- Zerrenda horietan hautagaien izen-abizenak agertuko dira, NANaren, atzeritarren nortasun agiriaren, pasaportearen edo dokumentu baliokidearen ausazko lau digitu gehituta. Hala behar denean, ez onartzearen arrazoa agertuko da.



6.7.– Hautagaiak zein hurrenkeratan hartuko duten parte probetan: deialdi bakoitzeko oinarri espezifikotik hala aurreikusten denean, hautagaiak probak egiteko hurrenkera hasiko da UPV/EHUK egingo duen zozketan ateratzen den letratik, galdera sortak argitaratzean zehaztuko dena.

Zazpigarrena.– Epaimahaia.

7.1.– Izendapena.

Hautaketa probak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak UPV/EHUKo gerentearen erabakiaren bidez izendatuko dira.

7.2.– Epaimahaien osaera.

Epaimahaiek kide kopuru bakoitia izango dute, eta, betiere, epaimahaiburu bat eta epaimahaikideak izango dituzte. Epaimahaikideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaiko kide guztiek ordezkari bana izango dute.

Epaimahaiak edo hautaketa organoak osatzean, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak bete beharko dira, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da; gainera, ezin izango dira epaimahaikide izan hautespen edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak, lan kontratudun behin-behinekoak, ez konfiantzako langileak. Hautaketa organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti, eta ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa organoetako partaide. Hori guztia bat etorrita urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu batekina onartzekoak, 60. artikuluan zehaztutakoarekin. Era berean, ezin izango dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa probetarako hautagaiak prestatzen ibilitako plantillako langile finkoak edo karrerako funtzionarioak.

Epaimahaia osatzen duten guztiek izan beharko dute deialdian ateratako plazetarako eskatzen den titulazioaren maila berekoa edo goragokoa, eta gainera administrazio publikoko langile finkoak edo karrerako funtzionarioak izan beharko dute. Epaimahaikide gehienak ezin izango dira izan hautaketa prozesuko plazaren eskala bereko langileak edo funtzionarioak.

Zailtasun teknikoengatik edo bestelakoengatik hala komeni denean, epaimahaiek aholkularien laguntza baliatu ahal izango dute, proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariok beren espezialitate teknikoaz baino ez diote lagunduko epaimahaiari, eta hitza izango dute, baina ez botorik. Era berean, epaimahaiek laguntzaileak eduki ahal izango dituzte probak aurrera eramateko. Organo eskudunari proposatu beharko diote alde aurretik, hark baimendu dezan laguntzaile kopurua.

Aholkulari espezialisten eta laguntzaileen izendapena iragarki baten bidez argitaratuko da erakundearen webgunean.

7.3.– Abstenzioa eta errekusazioa.

Epaimahaikideak, aholkulariak eta laguntzaileak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta deialdia egin duen agintariari emango diote horren berri, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean badaude (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Era berean, abstenitu egingo dira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautagaiak trebatzen aritu badira deialdiko plazaren edo plazen eskala bereko edo pareko eskalako hautaketa probetarako, edo epe horretan moduren batean kolaboratu badute deialdiko plazen eskalako oposizioetarako prestakuntza ematen duten zentroekin.



Epaimahaia eratzeko egiten den bileran, epaimahaiko buruak epaimahaikideei eskatuko die adierazpen formal baten bidez ziurtatu dezaten ez daudela halako egoeraren batean. Adierazpen hori bera egin beharko dute aholkulari espezialistek eta laguntzaileek ere.

Era berean, epaimahaikideak, aholkulariak eta laguntzaileak goian aipatutako egoeretakoren batean daudenean, interesdunek errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikulua babespenean eta 24. artikuluan zehaztutako prozedura betez (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

7.4.- Jarduteko arauak.

Epaimahaiek beti jokatu dute administrazio prozedurari buruzko legeetan kide anitzeko organoentzat ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, epaimahaiko buruak agindurik eta idazkariak alde aurretik deituta, epaimahaia probak hasi aurretik bilduko da, behar besteko tartear. Epaimahaia balioz eratzeko ezinbestekoa izango da epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaiko kideen eta ordezkioen karguak hutsik baleude edo pertsona horiek kanpoan edo gaixorik baleude, edota arrazoi legal batengatik epaimahaian ezin balira egon, antzinatasun eta adin handieneko epaimahaikideak izango lirateke ordezkioak, hurrenkera horretan.

Erabakiak bertaratutako botoen gehiengoaz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiko buruaren kalitate botoarekin hautsiko dira.

Epaimahaia gardentasun printzipioari jarraikiz arituko dira.

Kalifikazioetan eraginik daukan erabakirik hartuz gero, erabaki horiek guztiak jasota ageri beharko dira bileretako eta ariketetako aktetan.

Epaimahaiaren erabakien kontra egin ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

7.5.- Epaimahaiaren ahalmenak.

Epaimahaikideek erabateko autonomia funtzionalaz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduta eta objektibotasuna bermatzeko erantzukizuna beren gain hartuta.

Bestalde, ordenamendu juridikoari jarraituz, oinarri hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza eta gorabehera guztiak argituko dituzte, prozesu bakoitza zuzen betetzeko behar diren erabakiak hartu, eta irizpideak ezarriko dituzte deialdietan jasota ez dauden kasuak sortzen direnean.

Epaimahaietako buruek behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio faseko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko. Zuzenketa irakurgailu optikoaren bidez egingo da, eta probak hautagaia nor den jakin gabe zuzenduko dira.

Osasuna babesteko eskubidea eta funtzio publikoan sartzea arautzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bateratze aldera, eta, era berean, hautaketa prozesuen garapena ordenatzeko azkartasun printzipioa bateratze aldera, epaimahaiei gaitasuna ematen zaie probak edo faseetakoren bat (forma, prozedura eta hautagaien parte hartzeko ordena barne) garatzean beharrezkoak diren jarraibide edo ebazpen guztiak eman ditzaten, lehia askearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla eta hautaketa prozesua normaltasunez garatzen dela bermatzeko.

Hautagaiak azterketetan onartzearen inguruan sor litezkeen gorabeherak epaimahaiak ebartziko ditu, eta organo eskudunari jakinaraziko dizkio bere erabakiak.



Epaimahaiek, prozesuaren edozein unetan, deialdian eskatutako betekizunen egiaztagiriak eskatu ahal izango dizkiete hautagaiei. Epaimahaiak helduko balira jakitera hautagairen batek ez duela baldintza bat edo gehiago betetzen, lehendabizi interesdunari entzungo liokete, eta gero, hala badagokio, pertsona hori hautaketa prozesutik kanporatzeko proposamen arrazoitua helarazi beharko liokete hautagai onartuen behin betiko zerrenda onartu duen organoari, eta, era berean, hautagaiak eskarian emandako datu okerrak edo faltsuak jakinaraziko lizkiokete, dagokien ondorioei begira. Administrazioaren organo eskudunaren erabakiaren kontra administrazioarekiko kasuan kasuko errekurtsioak jarri ahal izango dira.

Epaimahaiek prozesutik kanpo utzi ahal izango dituzte probetan edozein iruzur egiten saiatzen diren hautagaiak, ariketak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraituz egingo baitira. Era berean, hautaketa prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili lehenago aipatutako printzipioak saihesteko erabili ahal den gailu edo baliabide teknologikorik. Hautagairen batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan poltsan.

Epaimahaien erabakiak lotesleak dira administrazioarentzat, nahiz eta administrazioak, egoki deritzonean, berrikusi ahal izango dituen erabaki horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 106. art. eta hurrengoak). Hori gertatzen denean, berriz egin beharko dira kasuan kasuko probak edo tramiteak.

7.6.– Egoitza.

Jakinarazpen eta gainontzeko gorabeheretarako, epaimahaien egoitza hau izango da: Bibliotekako eraikina, Pertsonaleko Gerenteordetza, Sarriena auzoa, z.g., 48940 Leioa.

7.7.– Zerbitzu ordainak.

Epaimahaietako kideek zerbitzu ordainak jasoko dituzte egindako lanengatik, bertaratzea barne, arlo horretan indarrean dauden arauak jarraituz.

Zortzigarrena.– Hautaketarako prozedura.

8.1.– Prozesu motak.

Lehenengo oinarrian adierazi den bezala, eskala bakoitzeko deialdi espezifikoak honela egingo dira:

- lehiaketa-oposizio bidez, ohiko prozesuan
- merezimendu lehiaketaren bidez, egonkortasunerako ezohiko prozesuan, baldin eta horretarako ezarritako lege baldintzak betetzen dituzten lanpostu hutsak badaude.

Prozesu bietan (ohikoan eta egonkortasunerako ezohikoan) berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak betetzen direla bermatuko da.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek oinarri orokor hauek osatu eta garatuko dituzte. Oinarri orokor hauek arautuko dute oinarri espezifikoetan beste era batera arautzen ez den guztia.

Hautaketa prozesu bakoitzeko zehaztasunak (plazen izaera eta ezaugarriak, eduki beharreko titulazioa, hautaketa probaren nondik norakoak, oposizio faseko ariketa edo probak kalifikatzeko sistema, eta, halakorik egonez gero, lehiaketa faseko merezimenduen balorazioa eta egiaztatzea), oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.



Hautaketa prozesu bakoitzean bereziki zainduko da gainditu beharreko probak bat etortzea lanpostuko plazetan bete beharreko zereginekin, eta, hala dagokionean, behar diren proba praktikoak egingo dira.

8.2.– Lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistemak fase hauek izango ditu:

8.2.1.– Oposizio fasea.

Oposizio faseak deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako ariketak izango ditu.

8.2.2.– Lehiaketa fasea.

Lehiaketaren fasean oposizio fasea gainditu duten hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera.

Deialdi bakoitzean, merezimenduen baremoak atal hauek izango ditu:

- A) merezimendu profesionalak.
- B) merezimendu akademikoak.

Merezimendu horiek kontuan hartuko dira bakar-bakarrik eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortu direnean, 8.4 oinarrian aipatutako merezimenduaren kasuan izan ezik.

Ez da baloratuko, inolaz ere, epez kanpo aurkeztu eta egiaztatutako merezimendurik.

Lehiaketa fasea ez da baztertzaileria izango eta fase horretan lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

8.3.– Merezimendu lehiaketaren bidezko hautaketa sisteman hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, merezimendu bakoitzari puntuazioa esleituz, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera.

Deialdi bakoitzean, merezimenduen baremoak atal hauek izango ditu:

- A) merezimendu profesionalak.
- B) merezimendu akademikoak.

Merezimendu horiek kontuan hartuko dira bakar-bakarrik eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortu direnean, 8.4 oinarrian aipatutako merezimenduaren kasuan izan ezik.

Ez da baloratuko, inolaz ere, epez kanpo aurkeztu eta egiaztatutako merezimendurik.

8.4.– Euskara.

Hautagaiek, nahi izanez gero, euskara maila egiaztatu ahal izango dute, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez parte hartzen ari diren hautaketa prozesuaren barruan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba bakar batera aurkeztu ahal izango dira LEP honen barruan, hainbat deialdi espezifikotan parte hartzen badute ere.

AZPkoen Erregistroan eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden egiaztagiria ez dira aurkeztu beharko berriro, baina alegatu egin beharko dira.

Erregistro horretan ez dagoen euskarako beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu egin beharko da, betiere baliozkotuta badago azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehaztutakoaren arabera (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena), eta titulu edo ziurtagiri hori lortu bada hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko LEP honen deialdi espezifikoaren barruan deitutako proben behin betiko emaitzak argitaratu baino lehen.



Bestalde, hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi izanez gero apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena), kasuan kasuko ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.

Lortu ahal izango diren puntuazioak oinarri espezifikoetan zehaztuko dira, puntuazio osoarekiko ehuneko hauen arabera:

Eskalan 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE edo goragokoa izateagatik: % 5.

Eskalan 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE edo goragokoa izateagatik: % 10.

Eskalan 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE izateagatik: % 10.
3. HE edo goragokoa izateagatik: % 15.

Eskalan 4. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE izateagatik: % 10.
3. HE izateagatik: % 15.
4. HE izateagatik: % 20.

8.5.– Lehiaketa-oposizio bidezko sistemaren hasiera eta garapena:

8.5.1.– Oposizio fasea.

Hautaketa prozesua oposizio fasearekin hasiko da, eta gutxienez lau (4) hilabete igaro beharko dira oinarri espezifiko bakoitzean jasotako galdera sortak argitaratzen direnetik.

Kasuan kasuko epaimahaiak erakundearen webgunean argitaratuko duen iragarkiaren bidez jakinaraziko dira oposizio faseko ariketa egiteko lekua, data eta ordua.

Deialdi bakarra egingo da oposizio faseko ariketarako, baina baliteke ariketa saio batean baino gehiagotan banatzea, dagokion epaimahaiaren irizpidearen arabera. Hautagai bakoitzak deitu zaion saiora agertu beharko du. Bere burua identifikatzeko, hautagaiak eraman beharko du ariketara nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidatzeko baimena edo epaimahaiak onartzen duen beste edozein agiri.

Ariketetara agertzen ez diren hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira, baldin eta ez badute alegatu eta justifikatzen alde aurretik ariketara joan ezina. Epaimahaiak erabaki arrazoitu bat eman beharko du halakoen inguruan. Hautagaia nahitaezko ariketara agertzen ez bada deitzen zaionean, automatikoki galduko du ariketa hori egiteko eskubidea, eta, hortaz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Hautagairen batek ezin badu hautaketa prozesuan parte hartu arriskuko haurdunaldiagatik, erditzeagatik edo bestelako osasun egoera oso larri batengatik, eta hori behar bezala egiaztatzen badu eta epaimahaiak ontzat ematen badu, atzeratu egingo zaizkio falta zaizkion faseak, eta horiek gainditzearen baldintzapean geratuko da. Dena dela, atzerapenak ezin izango



dio kalterik egin beste hautagaiek prozesua arrazoitzeko epean ebatzia izateko duten eskubideari. Epaimahaiak baloratu beharko du hori, eta, edozelan ere, atzeratutako probak beti egin beharko dira prozesua gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu aurretik.

Aurreko atalean adierazitako egoeraren batean dauden hautagaiek beren egoeraren berri eman beharko dute, egoera hori ezagutu bezain laster, eta, nolanahi ere, azterketaren eguna eta ordua baino lehen, eta egiaztagiriak aurkeztu beharko dizkiote epaimahaiari, eskuratu bezain laster eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, egoera jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Epaimahaiak egoera baloratuko du eta, ontzat emanez gero, beste data baterako deituko du hautagaia azterketa egiteko. Azterketaren hasiera data baino beranduago jakinarazitako egoerak ez dira baloratuko, ezta ere egiaztagiriak epearen barruan aurkezten ez dituzten hautagaienak (bi egun balioduneko epea egoeraren berri ematen denetik hasita).

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta/edo baliabideak egokituko dituzte desgaitasuna duten hautagaienentzat eta haurdun edota erditzen daudenentzat, edo ezinbesteko egoeraren baten daudenentzat, baldin eta egokitzapena behar badute eta hala adierazi eta egiaztatu badute eskarian. Hartara, azterketak gainerako parte hartzaileen baldintza berberetan egingo dituzte, betiere horrek proben edukia desitxuratu barik eta probetan eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

Oposizio faseko ariketak deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten denaren arabera kalifikatuko dira.

Oposizio faseko ariketa behin zuzenduta, epaimahaiak, kalifikazioak aintzat hartuta, ariketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak egingo ditu, puntuazioaren arabera ordenatuta:

- a) Txanda librean ariketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan ariketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.

Ariketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute honetarako:

- a) Erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazio horiek behin ebatzita, oposizio fasea gainditu duten pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

- b) Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko.

b.1.- Merezimenduak alegatzeko dokumentuak aurkeztea:

Interesdunek dokumentu hauen fotokopia aurkeztu behar dute, 5.3 oinarriari jarraikiz:

1.1.- Merezimendu moduan alegatutako titulazio akademikoak: titulua, edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren dokumentua, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu bat.

1.2.- Esperientzia profesionala: betetako zerbitzuak baloratu ahal izango dira bai egonkortasunerako ezohiko prozesuan bai ohiko prozesuan.



Egonkortasunerako ezohiko prozesuan, merezimendu lehiaketaren bidezkoan, behin baino ez dira baloratuko emandako zerbitzuak, eta, beraz, ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu desberdinetan. Eskala eta prozesu horiek jasota daude Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiko II. eranskinean (administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatzeko erabakia; 2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk).

Ohiko prozesuan, lehiaketa-oposizioaren bidezkoan, behin baino ez dira baloratuko emandako zerbitzuak, eta, beraz, ezin izango dira erabili eskala bereko prozesu desberdinetan. Eskala eta prozesu horiek jasota daude Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiko II. eranskinean (administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatzeko erabakia; 2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk).

Horrela, bada, hautagaiak zehaztu egin beharko du zein aukeratzen duen, oinarri orokorre jarraikiz.

UPV/EHUK ofizioz erantsiko ditu ziurtagiriak unibertsitatean lanean egon diren hautagaien kasuan.

Gainerako administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko administrazioak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, non zehaztu beharko diren lan egindako aldiak eta taldea eta eskala. Horrez gain, lanpostuaren edo lanpostuen monografia edo eginkizunen ziurtagiria aurkeztu beharko da, kasuan kasuko langileen arloko zuzendaritzak emandakoa.

1.3.- Hizkuntzak.

Bakarrik baloratuko dira, maila bakoitzean, UPV/EHUKo errektoreak 2012ko martxoaren 8an emandako Erabakian aipatutako titulu eta ziurtagiriak (hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzko erabakia, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez eguneratua), edo erabaki horren ordezkio arautegian aipatutakoak.

Balorazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

Oposizio fasea gainditu ez dutenek errekurtsioa jarri badute, kautela neurri gisa, dokumentuak baldintza berberetan aurkeztu ahal izango dituzte, errekurtsioaren ebazpenak hasierako fasea gainditzea ekar dezake eta.

b.2.- Dokumentazioa ez aurkeztea:

Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu ezean, ez dira merezimenduok baloratuko. Era berean, egiaztapenak aztertuta ikusiz gero hautagaiak ez duela alegatutako merezimenduren bat, ez da baloratuko merezimendu hori, baina bai gainerako guztiak.

39/2015 Legearen 68. artikulua adierazitakoarekin bat etorruta, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumenturik falta bada, UPV/EHUK iragarki bat argitaratuko du webgunean interesdunei jakinarazteko hamar (10) egun baliouduneko epea daukatela falta diren dokumentuak bidaltzeko, eta, horrela egin ezean, merezimenduok ez direla kontuan hartuko lehiaketa fasean.



8.5.2.- Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasea oposizio fasea amaitu ondoren hasiko da.

Lehiaketa fasean merezimenduak baloratuko dira deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztutako baremoen arabera: puntuak esleituko zaizkio merezimenduen atal bakoitzari, eta atal guztietako puntuen batura izango da fase honetako balorazio orokorra.

Merezimenduen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, hautagaiek zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazio horiek behin ebatzita, merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko da.

8.6.- Merezimendu lehiaketaren bidezko hautaketa sistemaren hasiera eta garapena

Lehiaketan merezimenduak baloratuko dira deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutako baremoen arabera: puntuak esleituko zaizkio merezimenduen atal bakoitzari, eta atal guztietako puntuen batura izango da balorazio orokorra.

Aplikagarri izango dira, baita ere, 8.5 oinarriko b.1) eta b.2) letretan adierazitakoak.

Merezimenduen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, hautagaiek zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazio horiek behin ebatzita, merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko da.

8.7.- Deialdi espezifiko bakoitzeko azken kalifikazioa.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa hau izango da:

- Lehiaketa-oposizioaren bidezko deialdi espezifikoetan, oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura.
- Merezimendu lehiaketaren bidezko deialdi espezifikoetan, oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura.

Deialdi espezifiko bakoitzeko behin-behineko kalifikazioa erakundearen web gunean argitaratuko da lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako zerrendan, eta adierazita izen-abizenak eta NANaren edo atzeritarren, pasaportearen edo agiri baliokidearen identifikazio zenbakiaren ausazko lau zifra.

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:

A) Merezimendu lehiaketaren bidezko hautaketa sistema

- 1) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 4) Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.
- 5) Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuen atalean.
- 6) Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.



- 7) Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.
- 8) Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez-ofizialen atalean.
- 9) Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 10) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta dauden artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

B) Lehiaketa-oposizioaren bidezko hautaketa sistema

- 1) Puntuaziorik handiena UPV/EHUKo lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 4) Puntuaziorik handiena merezimenduen ataleko bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
- 5) Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
- 6) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 7) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta dauden artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

Behin-behineko azken kalifikazioarekin batera deialdi bakoitzean eskaintzen den lanpostuen zerrenda argitaratuko da.

Eskaintako lanpostuen zerrendan zehaztuta egongo dira: eskala, prozesua (eskala berean prozesu bat baino gehiago egonez gero), lanpostuaren izena, atxikipenez dagokion zentro organikoa, lanpostua zein udalerritan dagoen, lanpostu mailako osagarria eta espezifikoa, hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanaldia eta lanpostuaren betebeharrak espezifikoa.

Prozesuko behin-behineko azken kalifikazioa behin argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, zazpi (7) egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, argitara emango dira deialdi bakoitzeko behin betiko kalifikazioak.



Kontuan hartuta plaza asko eskaintzen direla eta ustez eskari ugari egongo direla, eta abuztuan zaila denez epeak betetzea, hil hori baliogabetzat joko da epeak zenbatzeari dagokionez.

8.8.– Lanpostuak aukeratzea.

A) Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen prozesu bakarrean parte hartu badute, hau da, ohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean edo egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean, zazpi (7) egun baliouduneko epea izango dute lanpostua aukeratzeko, deialdietako azken eta behin betiko kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita.

B) Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen bi prozesuetan parte hartu badute, hau da, ohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean zein egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean, lanpostuen zerrenda bakarra osatuko dute, nahi izanez gero, prozesu bateko zein besteko lanpostuak tartekatuta, eta beren lehentasunen arabera hurrenkeran jarrita, kontuan izanda lanpostuak zein hizkuntza eskakizun duen eta zein betebeharrak espezifikatu, halakorik badu.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen prozesu bietako bakarrean parte hartu badute, kasuan kasuko deialdi espezifikoko lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu, dagokion eskalakoak.

Zazpi (7) lan egun baliouduneko epea egongo da lanpostuak aukeratzeko, izapide horri ekiteko gerenteak emango duen erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita.

8.8.1.– Lanpostua aukeratzeko eskariak.

Lanpostuak bitarteko elektronikoen bidez eskatu behar dira, Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztagiria eskuratuko da.

Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikatu egiaztatzeak agiria aurkeztu behar da.

Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikatu egiaztatzeak agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

8.8.2.– Izendapen askeko lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioentzako arau espezifikoak.

Pertsona hautatuak izendapen askeko lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak direnean, destinoa lanpostu horretan izatea aukeratu ahal izango dute lanpostuak aukeratzeko fasean, betiere lanpostuak horretarako aukera ematen badu. Halakoetan, ez da erabiliko lan eskaintza publikoko plazarik.

8.8.3.– Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonen galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak.

8.9.– Oposizio faseko nota mantentzeko aukera.

Lehiaketa-oposizio bidezko ohiko prozesuan, salbuespen gisa, hautagaiak hurrengo LEPan oposizio faseko ariketak egiteaz salbuetsita geratuko dira, baldin eta funtzionarioen eskaletarako gordetako plazetarako deialdian oposizio fasean gehienez lor daitezkeen puntuazioaren % 70etik gorako nota lortu badute, eta, betiere, hurrengo LEPan talde, eskala eta txanda berean aurkeztu badira. Hala ere, nota hobetu nahi izanez gero, aurkezteko aukera izango dute. Kasu horretan, nota txikiagoa lortuz gero edo oposizio fasea gainditu ezean, 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publiko bateratuko deialdian lortutako nota gordeko zaio hautagaiari.



Edonola ere, aukera hori soilik aplikatuko da, baldin eta gai zerrendaren eta ariketen edukia eta horiek kalifikatzeko moduak parekoak badira, eta nahitaezkoa izango da hautaketa prozesuan parte hartzeko izena ematea.

Bederatzigarrena.– Hautatutako pertsonen zerrenda. Lanpostuak esleitzea.

9.1.– Lanpostuak hautatzeko epea amaituta, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda egingo da prozesua (ohikoa edo egonkortasunerako ezohikoa), kontuan hartuta hautagai bakoitzaren puntuazio hurrenkera eta adierazitako lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte. Hamar egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaien eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikoetarako.

Erreklamazioetarako epea amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira prozesua (ohikoa edo egonkortasunerako ezohikoa).

Epaimahaiak ezin izango ditu deialdian ateratako plazak baino hautagai gehiago aukeratu, eta muga hori gainditzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Dena den, eta bat etorrita urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 61.8 artikuluan zehaztutakoarekin eta deitutako plaza huts guztiak bete egiten direla bermatzeko, deialdi espezifikoetan jasota egon behar da deialdia egin duen organoak eskatu egin behar diola hautaketa organoari hautagaien zerrenda osagarri bat, proposatutako hautagaienaz gain – karrerako funtzionarioak izendatzeko–; izan ere, kontuan hartuta egonkortasunerako prozesua berezia dela eta parte hartzea oso handia izango dela, saihestu egin nahi da lanpostuak hutsik geratzea arrazoi hauengatik: aukeratutako hautagaien izendapenaren aurretik edo lanpostua jabetzan hartu aurretik lanpostuari uko egin diotelako, aurkeztutako dokumentuetan ikusten delako hautagaien ez dituztela betetzen eskatutako baldintzak, edo hautagaietako batzuek ezin dituztelako hartu lanpostuak ezusteko arrazoiengatik.

Horrez gain, kasu batzuetan plaza hutsak betetzeko esleipen osagarriak egingo dira. Esleipen hauek behin baino ez dira egingo eta, egin ere, kasu hauetan egingo dira:

- a) Lanpostua jabetzan hartzean lanpostua gordeta izateko eskubiderik ez daukan eszedentzia eskatuz gero, hutsik geratzen den lanpostua esleitu da.
- b) Karrerako funtzionarioei beste eskala bateko lanpostua esleitzen zaienean, titular izanik hutsik utzi dituzten lanpostuak esleitu dira.
- c) Plaza huts berririk sortu bada, deialdian zehaztutako plaza kopuruari plaza gehiago gehitu ahal izango zaio, gehienez ehuneko hamar.

Aurreko letretan zehaztutako lanpostuen esleipen berriak, prozedurari jarraituz eta ondorengo irizpideei jarraituz egingo dira:

- a) Lanpostuak betetzeko sistema lehiaketa izatea.
- b) Lanpostuan karrerako funtzionariorik ez egotea behin-behineko atxikipenean edo zerbitzu betekizunetan osasun arrazoiengatik.
- c) Lanpostuen zerrendan ez agertzea amortizatzeko edo desagertzeko bezala.

Plaza huts berriak ohiko prozesuan sartu eta esleitu dira, lanpostuen zerrendan zehaztuta daukaten eskala berean.



Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetara deituko den pertsona kopurua epaimahaiak zehaztutako kopuru bera edo txikiagoa izango da, betiere, hurrenkerari jarraituz eta kontuan hartuta hizkuntza eskakizuna. Kopuru horrek bermatu egin behar du aukeran dauden plaza guztiak esleitu egingo direla.

Hautaketa prozedurari amaiera ematen dion ekintza arrazoitua izan beharko da. Bere diskrezionalitate teknikoa erabiliz balorazioak egiten dituenen, epaimahaiak legeen, arautegien eta deialdiaren oinarrien arabera emango du bere ekintzen arrazoibidea.

9.2.- Lanpostuak Gerentziak esleitu ditu, hautatuko pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendari jarraituta, betiere kontuan hartuta aurreko paragrafoetan aipatutako esleipen osagarriak.

9.3.- Oposizio fasean 17,5 puntu edo gehiago lortzen dituzten pertsonak, hautatuak ez badira, kasuan kasuko lan poltsan sartuko dira, UPV/EHUn aldi baterako zerbitzuak emateko erabiltzen direnetan. Edonola ere, errespetatu egingo dira 2022ko ekainaren 30eko Akordioko 4. atalean adierazitako konpromisoa (2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPetako sarrera prozesuetako deialdiak arautzeko gutxieneko irizpideei buruzko akordioa), AZPko funtzionarioen negozioiazio mahaiaren 2018ko abenduaren 3ko Akordioko 5. puntua (akordioak irizpide orokorrak ezartzen ditu 2018ko birjartze tasari dagokion funtzionarioen lan eskaintza publikorako, eta funtzionarioen lekualdaketa lehiaketarako eta barne promoziorako), eta 2017ko uztailaren 18ko Akordioa (lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzko akordioa).

Hamargarrena.- Dokumentazioa aurkeztea.

10.1.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

10.1.1.- Hautatuen behin betiko zerrendako pertsonak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte beren gaitasuna egiaztatzeko eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko:

- a) Indarreko NANaren, pasaportearen edo nazionalitatea egiaztatzen duen beste edozein dokumenturen fotokopia, ez bada UPV/EHuko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.
- b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 43. artikuluan zehazten diren tituluak (deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutakoak kasu bakoitzerako), edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen agiria edo ikasketak osorik egin eta gainditu izanaren ziurtagiri akademikoa edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofiziala, ez bada UPV/EHuko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.
- c) Atzerriko hautagaiek administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute, esateko zein dokumentu zehatz aurkeztu behar duten, beren egoera dela eta.
- d) Zinpeko aitorpena edo promesa, non interesdunak ziurtatzen duen ez duela desgaituntzarik funtzio publikoak betetzeko eta ez dela diziiplina espediente baten bidez aldentua izan administrazio publikoetatik, eta ez dagoela legezko desgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren inongo egoeratan (53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Langileen Bateraezintasunei buruzkoa eta 598/1985 ED, apirilaren 30ekoa, Estatuaren Administrazioaren, Gizarte Segurantzaren eta beraien menden dauden ente, erakunde eta enpresen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoa).



Espainiar nazionalitatea ez dutenek zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko dute, non ziurtatzen duten ez daukatela diziiplina zehapenik edo kondena penalik edo horren parekorik, beren estatuko funtzio publikora sartzea eragozten dienik.

e) UPV/EHUko Osasun Zerbitzuak emandako medikuaren ziurtagiria, dioena interesdunak ez duela gaixotasunik edo akats fisikorik, eskatu duen lanpostuko zereginak betetzea eragozten dionik.

f) Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako baldintzen egiaztagiria, besterik eskatuko balitz.

g) Desgaitasuna duten eta deialdietan parte hartu duten hautagai guztiek aurkeztu beharko dute beren desgaitasun maila frogatzen duen indarreko ziurtagiria, kasuan kasuko organo eskudunak egina.

10.1.2.- Oinarri honetako aurreko puntuetan adierazitako dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa daukaten dokumentuak (aldaeiznak izan daitezten), edo kopia konpultsatuek. Kopia horietan, balioa izan dezaten, informazio hau agertu beharko da: konpultsaren data eta dokumentua konpultsatu duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

10.1.3.- Hautagaiak ezin baditu dokumentu horiek aurkeztu eta hala justifikatzen badu, zuzenbidean onartzen den beste edozein modutan frogatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

10.2.- Dokumentuak aurkezteko tokia eta epea.

Aipatutako dokumentuak hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, aukeratutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, Pertsonaleko Gerenteordetzan (UPV/EHUko Bibliotekaren eraikina, Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa).

10.3.- Dokumentazioa ez aurkeztea.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, hautagaiek epe horretan dokumentazioa aurkezten ez badute edo dagozkien zereginak betetzeko eska daitekeen gaitasun fisiko edo psikikorik ez badute, ez dute jasoko UPV/EHUko karrerako funtzionario izateko izendapenik eta haien ekintza guztiak deuseztatuta geratuko dira, eskarian gezurra esateagatik eska lekietan erantzukizuna ezertan eragotzi gabe.

Halakoetan, epaimahaiak ondoren sailkatutako pertsona proposatuko du, prozesua gaingitu duten hautagaien behin betiko zerrendako hurrenkerari jarraituta, zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera. Horretarako, epaimahaiak hautatutzat joko ditu aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hutsik geratu diren plaza adina hautagai.

Hamaikagarrena.- Karrerako funtzionarioen izendapena eta lanpostua jabetzan hartzea.

2024ko abenduaren 31 baino lehen, errektoreak erabakia emango du hautatutako hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko, zehaztuta esleitutako lanpostua. Lanpostua jabetzan hartzeko epea hilabetekoa izango da, luzaezina, izendapenen erabakia EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.



Hamabigarrena.- Komunikazioak eta gorabeherak.

12.1.- Hautaketa prozesu bakoitzari lotutako egintza eta akordio guztiak erakundearen webgunean argitaratuko dira.

Argitaratze horiek lotesleak izango dira oposizio faseko ariketak egiteko deialdietarako, bai eta, hala dagokionean, lehiaketarako ere. Era berean, argitaratze horien datak emango die hasiera deialdian ezarritako epeei eta oinarrien eta epaimahaiaren ohiko jardunaren arabera ireki beharko diren gainerako epe guztiei.

12.2.- Hautagaiek epaimahaiari eta UPV/EHUko organo eskudunari helarazi ahal izango diete epaimahaiko kideen edo gainerako hautagaien egintzen inguruan sor litezkeen gorabeheren berri. Era berean, hautaketa prozesuaren inguruko erreklamazioak, kexak, eskariak edo iradokizunak ere helaraziko dizkiete.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalak babestea hautaketa prozesuaren kudeaketan.

13.1.- Oinarri hauen xede den edozein hautaketa prozesutan parte hartzeak berez dakar hautagaiak baimena ematea eskarian jasotako bere datu pertsonalak –izen-abizenak, NANA eta prestakuntza maila– erabil daitezen aldizkari ofizialetan, iragarki oholetan, webgunean eta, oro har, hautaketa prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzak komunikatzeko erabilitako beste edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVA Pek edo erakunde eskudunak euskara mailaren akreditazioa egiazta dezan eta epaimahaiak berak edo hark aukeratutako erakundeak edo enpresak hautaketa prozesua zuzen prestatzeko eta egiteko beharrezkoak diren datuak erabil ditzan ere.

Oinarri hauen xede diren hautaketa prozesuak publikotasun printzipioak gobernatzen ditu; beraz, eskaria ez da onartuko, baldin eta hautagaiak bere datuak ematea onartzen ez badu aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

Oinarri hauetan aipatutako hautaketa prozesuen bidez eratuko diren lan poltsen ondorioetarako (ikus 9.3 oinarria), prozesuetan parte hartzeko eskarian hautagaiek adierazi beharko dute eman ahal izango zaizkien ala ez administrazio publikoko beste erakunde batzuei datu hauek: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila. Datu horiek emango zaizkie, soil-soilik, administrazio horien lan eskaintzak jasotzeko legez aurreikusitako baldintzetan, eta hautagaiak berariaz uko egin ezean, horretarako baimena ematen duela ulertuko da.

13.2.- Hautaketa prozesuen gestioan, datu pertsonalak «Lanpostuen aukeraketa eta hornitzea» eta «Langileen espedienteak» izeneko fitxategietan tratatuko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren erabakiaz sortuak biak (Unibertsitateko datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko Erabakia, 2007ko apirilaren 11ko EHAA). Bi fitxategi horien administrazio organo arduraduna Euskal Herriko Unibertsitatea bera izango da, eta bertako datuak babesteko ordezkarirengana jo beharko da datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak baliatu nahi izanez gero.

13.3.- Eskariak aurkezteko era guztietan (bosgarren oinarrian aipatuak) gai horri buruzko informazio klausula bat jarriko da.

13.4.- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioko langileek, epaimahaietako kideek eta horiei laguntasuna emango dieten adituek (adituri egonez gero) isilpean gordeko dituzte hautaketa prozesuen gestioan zehar euren eskuetara heltzen diren datu pertsonalak.

13.5.- Oinarri hauei jarraituz deialdi espezifiko bakoitzeko hautaketa prozesuetako faseetan argitara ematen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan gutxieneko datu



pertsonalak agertuko dira, publikotasun printzipioa betetzeko beharrezkoak direnak baino ez. Zerrenda horiek prozesuak amaitu arte egongo dira ikusgai eta, era berean, erreklamazioak edo errekursoak jartzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora guztian.

Zerrenda horietan klausula bat jarriko da, esateko datu pertsonalak dauzkatela, zerrendak bete egiten duela datuak babesteko alorrean indarreko legeriak dioena, eta zerrendaren helburu bakarra dela hautaketa prozesuko kasuan kasuko fasearen berri ematea eta parte hartzaileak jakinaren gainean jartzea. Era berean, paragrafo batean adieraziko da zerrenda horiek ez direla egongo herritarren esku; ezingo direla kopiatu, ez osorik ez zati batean; eta ezingo direla ez transmititu ez erregistratu informazioa berreskuratzeko inolako sistemarik erabilita, baldin eta interesdunek horretarako baimenik ematen ez badute.

AZKEN XEDAPENA.– Oinarriak indarrean sartzea.

Oinarri orokor hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.



III. ERANSKINA

OINARRI OROKORRAK: FUNTZIONARIOEN BARNE PROMOZIOA

Lehenengoa.- Helburua.

1.1.- UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko lan eskaintza publikoa onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.), lotua dagoena ekainaren 27ko 3/2017 Legean (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) eta 6/2018 Legean (2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) aurreikusitako tasa gehigarriei, bai eta 2019. urteko birjartze tasari ere. Era berean, azken erabaki horren bidez barne promozioa onartu zen.

UPV/EHuko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.), eta UPV/EHuren Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez 2021. urteko lan eskaintza publikoa (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.).

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak zehazten du hirugarren prozesu bat egongo dela behin-behineko enplegua egonkortzeko, ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 19.Bat.6 artikuluan eta uztailaren 3ko 6/2018 Legeko 19.Bat.9 artikuluan aipatutakoei gehituko zaiena (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea eta 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea, hurrenez hurren). Hirugarren prozesu horretan sartuko dira administrazio publikoetako plaza estruktural guztiak baldin eta, aurrekontuetan diruz hornituta egonik, gutxien dela 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan behin-behinean eta etenik gabe beteta egon badira.

Oinarri hauen bidez arau orokorrak ezarriko dira, Lan Eskaintza Publikoa gauzatzeko UPV/EHUK egingo dituen deialdi espezifikoek alderdi komunak gidatzeko, hain zuzen ere, funtzionarioen barne promozio independenterako deitutakoa, betiere enplegu publikora iristeko printzipio gidariekin bat etorruta.

1.2.- Oinarri orokor hauek eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek arautuko dute prozesua, eta lotesleak dira administrazioarentzat, epaimahaientzat eta hautagaiarentzat. Horrek, hala ere, ez du eragotziko, behar izanez gero, oinarriok berraztertzea, administrazioak bere kabuz edo norbaitek errekurtsioa jarrita. Oinarrietako testuak, orokorretakoak zein espezifikoetakoak, bat ez badatoz euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan, gaztelaniazkoa izango da nagusi.

1.3.- Oinarri hauetan zehaztuta ez dagoen guztirako, karrerako funtzionarioak hautatzeko UPV/EHUK egingo dituen deialdi espezifikoak arautuko dituzten oinarri orokorrak ezarriko dira.

1.4.- Halaber, konpromisoa adierazten da generoen arteko aukera berdintasunarekin, langileak Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzura sartzeko prozeduraren beraren oinarrian baitago.

Bigarrena.- Plazak banatzeko arau orokorrak.

2.1.- UPV/EHuren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoak prozesu orokor bakar batean egingo dira, eta deitutako plaza guztietatik ehuneko zazpi (% 7) gordeko dira desgaitasuna duten pertsonen betetzeko, eta halakotzat hartuko dira Desgaitasuna duten



Pertsonen Eskubideei eta haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 4. artikuluan 2. paragrafoan definitutakoak, betiere probak gainditu eta egiaztatzen badute 5.2.e) oinarrian adierazitako desgaitasun maila eta dagozkien zereginak betetzeko gaitasuna.

Gutxieneko ehuneko zazpi (% 7) hori gordetzeko orduan, eskaintako plazzen ehuneko bii (% 2) gutxienez adimen desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete beharko dute eta eskaintako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek. Hori guztia egingo da betetzeko Legegintzako 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (59. artikulua).

Beraz, gorde beharreko gutxieneko ehuneko zazpi (% 7) hori 2019, 2020, 2021 eta 2022 urteetako LEP bateratuko ohiko prozesua osatzen duten plaza kopuru osoari ezarriko zaio, eta plaza horien barne daude erreposizio tasatik eratorrita barne promozioaren bidez deitutakoak.

Aurreko atalean aipatutako erreserba funtzionarioen talde eta eskalatan aplikatu da, kasu bakoitzean oinarri espezifikoek zehazten duten banaketaren arabera.

Bermatuko da desgaitasuna duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berdinetan egingo dituztela probak.

2.2.- Hautagaiak, eskala bereko plazetarako, aukeratu egin beharko dute barne promozio txanda librean ala desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetako txandan parte hartu, batean ala bestean, eta eskarian adierazi beharko dute. Aukera zehaztu ezean edo eskala bererako aukera bat baino gehiago jarritz gero, hautagaiak txanda librean aukeratu duela ulertuko da.

2.3.- Desgaitasuna duten pertsonentzako modalitatean gordetako plazak agortuz gero probak gainditu dituzten pertsonen kopurua gordetako plazak baino gehiago izan direlako, probak gainditu eta plazarik lortu ez dutenek txanda libreko modalitate orokorreko plazak lortu ahal izango dituzte puntuen arabera hurrenkerari jarraituz.

2.4.- Desgaitasuna duten pertsonen txandan adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak bete gabe geratuz gero, plaza horiek adimenekoak bestelako desgaitasuna duten pertsonen eskainiko zaizkie.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandako plazak bete gabe geratuz gero, bai hautagairik ez dagoelako, bai probak gainditu ez dituztelako, plaza horiek barne promozio txanda libreari gehituko zaizkio.

Barne promozio txandarako gordetako plazak bete gabe geratuz gero, hutsik geratu diren plazak ohiko prozesuko txanda librera pasatuko dira.

Hirugarrena.- Hautaketarako baldintza orokorrak.

3.1.- Lanpostua jabetzan hartzean, hautatutako pertsonak Euskal Herriko Unibertsitateko karrerako funtzionarioak izango dira, kasuan kasuko titulazio taldean eta eskalan, eta arlo horretan indarrean dauden xedapenek emandako eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte.

3.2.- Izendapenak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Izendatutako hautagaiak hilabeteko (1) epea izango dute plaza jabetzan hartzeko, izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik



kontatzen hasita. Epe hori egutegiko hamabost (15) egun luzatu ahal izango da, hautagaiak berak eskatuta eta, betiere, egiaztatutako arrazoren bat egonez gero horretako.

Zehaztutako epean plaza jabetzan hartu ezean (ezinbesteko kasuetan izan ezik), hautagaiak deialdi honen bidez Euskal Herriko Unibertsitateko funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu. Horrelakoetan, 10.3 oinarrian zehaztutakoa ezarriko da.

3.3.- Nolanahi ere, lanpostuen hizkuntza eskakizunak derrigortasun data gainditua badauka deialdia egiten denean, ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna oinarri hauetan zehaztuta dagoen moduan egiaztatua izatea lanpostua betetzeko. Era berean jokatu da lanpostuen zerrendan plaza horiek zehaztuta dituzten gainontzeko betebeharrak espezifikoei.

Laugarrena.- Hautagaiak bete beharreko baldintzak.

4.1.- Hautagaiak hurrengo puntuetan adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen –oinarri hauen 8.3 atalean ezarritakoaren arabera hizkuntza eskakizuna egiaztatzeari buruzkoa salbuetsita–, eta, lanposturik esleitzuz gero, lanpostua jabetzan hartu arte mantendu beharko dituzte baldintzak.

4.2.- Lehiaketa-oposizio honetako probetan onartua izateko baldintzak honako hauek dira:

a) Hauetakoren bat betetzea:

- Europar Batasuneko herritarra izatea edo EBko herritar baten ezkontidea izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), edo halako herritar baten edo haren ezkontidearen ondorengoa izatea (bikotea zuzenbidez banaturik ez badago), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik goragokoak izan arren, haien pentsura bizi badira.
- Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenak direla bide, langileen zirkulazio askea aplikatzen den herrialderen bateko herritarra izatea.

b) Hamasei (16) urte beterik izatea eta nahitaezko erretirako adina bete gabe izatea.

c) Egin beharreko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Edozelan ere, beti aplikatuko da Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa). Hautaketa prozesua behin gaindituta, hautagaiak gaitasun funtzionala duela egiaztatu beharko du medikuaren ziurtagiria aurkeztuz edo osasun azterketa eginez. Baldintza hori bete beharko du lanpostuaz jabetzeko.

d) Diziiplina espediente baten ondorioz desgaituntzarik ez izatea funtzio publikoak betetzeko edo aldentuta ez egotea administrazio publikoen zerbitzuetik. Beste estatu batzuetako nazionalitatea dutenen kasuan, desgaituntzan edo pareko egoera batean ez egotea, eta diziiplina zehapenik edo antzekorik ez izatea, bere estatuan enplegu publikora sartzea eragozten dionik.

e) Deialdian eskatutako titulu ofiziala edo homologatua edukitzea edo ordainduta izatea titulua jasotzeko eskubideak, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria edukitzea, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofizial bat izatea, kasu guztietan eskariak aurkezteko epearen barruan. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala izatea.



- f) Indarreko legeriari jarraituz, legezko ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren egoera batean ez egotea; edozelan ere, legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea errespetatuko da.
- g) Deialdi espezifikoan izena emateko ordaindu beharreko tasa ordainduta izatea, indarreko arauak eta haien eguneratzeak jarraituz. Zenbatekoak prozesu bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.
- h) Lanpostuen zerrendak dena delako plaza edo postuetarako zehaztutako gainerako betebeharrak guztiak betetzea, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitakoaren arabera.
- i) Karrerako funtzionario izatea UPV/EHU, zerbitzu aktiboan edo lanpostua gordetzea dakarren beste administrazio egoera batean, eta egoera horretan mantendu beharko da, harik eta lanpostua jabetzan hartu arte.
- j) Lortu nahi den plazari dagokion sailkapen taldearen azpitik hurrena dagoen taldeko eskalaren batekoa izatea edo talde bereko eskalaren batekoa, bat etorrita deialdiko oinarri espezifikoekin.
- k) Jatorrizko plazarekin bat datorren postu batean bi urteko zerbitzuak beteta edukitzea UPV/EHUko karrerako funtzionario gisa.

Bosgarrena.– Eskariak aurkeztea.

5.1.– Eskariak aurkezteko epea eta era.

Barne promoziotik sortutako deialdi espezifikoetan parte hartzeko eskariak hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Eskariak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira, bide hauetako bat erabiliz:

- a) Bitarteko elektronikoen bidez/Internet bidez, www.ehu.eus helbidean egongo den eredu oinarri hauetako 5.2 atalean zehazten den bezala betez eta bidaliz. Bide hau aukeratuz gero, eskatzaileak irakurrak eskuratuko du erreferentzia zenbaki batekin, eta tasak ordaintzeko xehetasunekin.
- b) Oinarri hauetako 5.3 atalean adierazitako lekuetan eskuragarri egongo den eskari orria beteta, bat etorrita oinarri hauetako 5.2 atalean zehaztutakoarekin.

5.2.– Onartuak izateko eta probetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek honakoak bete beharko dituzte:

- 1) eskariko atal guztiak bete, eta aurkeztu beharreko agiriak erantsi.

Adierazitako epearen barruan baldintzak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du, euskarako eskakizuna egiaztatzeko aurreikusitakoaren kasuan izan ezik.

- 2) eskaria epe barruan aurkeztu, eta

- 3) tasak ordaindu.

Era berean, hautagaiek baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere; salbuespena da 8.3 oinarrian zehaztutako baldintza.



Eskarian honako datu hauek eman beharko ditu hautagaiak:

- a) Datu pertsonalak, prozesua behar bezala gestiona dadin.
- b) Zein txandatan hartu nahi duen parte, bat etorrita oinarri espezifikoekin:
 - txanda librean
 - desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan.

Deialdi espezifiko bakoitzean txanda bakarraren bidez hartu ahal izango da parte, oinarri hauetako 2.3 ataleko salbuespenarekin.

- c) Zein eskalatan hartu nahi den parte.
- d) Oposizio faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz ala gaztelaniaz. Atal hori bete ezean, probak gaztelaniaz egitea aukeratu dela ulertuko da.
- e) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkeztu direnek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izan beharko dute, kasuan kasuko administrazioako organo eskudunak aitortua (foru aldundiko organo eskudunak, Imkersok edo pareko organoak), eta aitortu horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Aipatutako baldintza egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da eskariari erantsita.

Era berean, adimen desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkeztu direnek egoera hori aitortua izan behar dute, eta aitortu horrek ondorioak izan behar ditu eskariak aurkezteko epearen azken egunean. Baldintza hori egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzen duen erabakiaren fotokopia aurkeztu beharko da kasuan kasuko administrazioako organo eskudunak emana (foru aldundiko organo eskudunak, Imkersok edo pareko organoak); eskariari erantsita aurkeztu beharko da.

Epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu desgaitasuna duten hautagaiek –eskarian hala adierazi badute– hautaketa prozesuko probetan parte hartu ahal izan dezaten gainerako hautagaien baldintza berberetan, abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorritik (2271/2004 Errege Dekretua, Enplegu publikora sartzea eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak betetzea arautzen duena).

Desgaitasuna duten pertsonen beren eskarian zehaztu beharko dute ariketak egiteko beharrezkotzat hartzen dituzten egokitzapen teknikoak eta zentzuzko egokitzapenak, hautaketa prozesuaren denbora eta bitartekoak aintzat hartuta, berdintasun baldintzetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Hori guztia proben izaera hutsaldu gabe egingo da, haien helburua baita hautagaien gaitasuna baloratzea eskuratu nahi duten plazaren zereginak betetzeko.

Epaimahaiak eskatutako egokitzapena bidezkoa den ala ez baloratu ahal izateko, interesdunak, eskariarekin batera, desgaitasun maila kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboaren kopia aurkeztu beharko du nahitaez. Bertan, aitortutako desgaitasun maila eragin duten gabezia iraunkorrak modu frogagarrian egiaztatu beharko dira, eta ondorio horietarako, ez da baliozkoa izango bestelako dokumenturik.

Denboraren egokitzapenean ariketak egiteko denbora gehiago emango da, ekainaren 9ko PRE-1822/2006 Aginduari jarraituz, zeinaren bidez irizpide orokorrak ezartzen diren desgaitasuna duten pertsonen sektore publikoan sartzeko hautaketa prozesuetan denbora gehigarria emateko.



Hautagai bakoitzaren behar espezifikoak aztertu ondoren, epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, halakoan beharra dagoen kasuetan.

f) Alegatutako titulazioa. Eskariari erantsi behar zaio honako agirien fotokopia: deialdian eskatutako tituluarena edo titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izanaren dokumentuarena, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiriarena, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofizialarena.

g) Tasak ordaindu izana.

h) Zinpeko adierazpena, hautagaiak adierazita baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere.

i) Aukeran, eskarian adieraztea baliabide edo denbora egokitzapenik behar den probarako.

5.3.- Eskariak aurkezteko lekuak:

Eskariak aurkezteko bide nagusia UPV/EHUn Lan Eskaintzen Ataria da.

Lan Eskaintzen Ataria erabili ezean, eskaria UPV/EHUn erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>) «Jasotzailea» atalean Gerentzia adierazita. Hori guztia bat etorrira 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.e) artikuluan zehaztutakoarekin eta UPV/EHUn idazkari nagusiak 2021eko apirilaren 28an emandako Erabakiarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUn langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrira UPV/EHUn idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.eus/oficinas_registro.html

Eskaria behar bezala aurkeztu ondoren, eskari egileak ziurtagiria eskuratuko du.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUn gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege deketuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. artikulua).

Lan Eskaintzen Atariaren bidez egindako eskariak ez dira beste bide honetatik aurkeztu behar. Dena dela, eskatzaileak tasa ordaindu badu sistemak ematen duen ordainagiria erabiltzeke, ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko du.



5.4.– Eskariak aurkezteko ordaindu beharreko tasak:

Oinarri hauetako 5.2. g) oinarrian zehaztutako baldintza betetzeko, tasak eskariak aurkezteko epearen barruan (ikus 5.1 oinarria) ordaindu beharko dira, Kutxabanken.

Eskaria UPV/EHUko webgunearen bidez aurkezten dutenek (5.1.a) oinarria) «ordainketa pasabidearen» bitartez ordaindu ahal izango dituzte tasak, sisteman bertan zehazten diren baldintzak betez. Bestela, ordainketa Kutxabanken egin ahal izango dute.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko kopurua.

Hautagaiei ez zaie tasen dirua itzuliko prozesutik kanporatuak badira beren jokabideagatik edo dokumentuen bidez ez egiaztatzeagatik benetan betetzen dituztela oinarrietan eskatutako baldintzak, nahiz eta hala egiten dutela ziurtatu eskariarekin batera aurkeztutako adierazpenean.

Eskariarekin batera azterketa egiteko tasa osorik ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Eskariak aurkezteko epean tasak ordaindu ezean, hautagaia prozeduratik kanpo geratuko da, oinarri hauetako 5.2.g) atalean prozesuan onartua izateko zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik.

Aurrekoa gorabehera, ordaindutako kopuruan ageriko akats nabarmena badago, akatsa zuzendu ahal izango da 6.2 oinarrian zehaztutako baldintzetan.

Tasa ordaindu eta ordainagiria aurkeztea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; ezinbestekoa izango da eskaria behar den epean eta eran aurkeztea, 5.1 oinarrian zehazten den bezala.

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten hautagaiak, egoera hori egiaztatzeko agiria eskariari erantsita.
- b) Familia ugariko kide diren hautagaiak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskaria aurkezten den egunean familia ugariko kide izan behar dira eta eskariari erantsi beharko diote familia ugariko kide direla egiaztatzeko agiria.

Seigarrena.– Hautagaiak onartzea eta erreklamazioak.

6.1.– Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du prozesuan onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrendarekin, baztertuen kasuan horretarako arrazoiak adierazita.

6.2.– Baztertutakoek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute eta, halakorik bada, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, eta horretarako epea hamar egun (10) balioudunekoa izango da, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita. Egitatezko errakuntzak edozein unetan zuzenduko ahal izango dira, administrazioak bere kabuz edo interesdunek eskaturik.

6.3.– Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta horien inguruko erabakia hartu ondoren, UPV/EHUko gerenteak erabakia emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko.



Nolanahi ere, probak egiteko eguna iritsi eta errekurtsua ebatzi gabe badago, errekurtsua jarri duten hautagaiek azterketa egin ahal izango dute; alabaina, errekurtsua ezetsiz gero, azterketak ez du baliorik izango.

6.4.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko gerenteari; horretarako hilabeteko epea egongo da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.5.- Oinarri honetan aipatutako erabakiak erakundearen webgunean argitaratuko dira: www.ehu.eus

6.6.- Zerrenda horietan hautagaien izen-abizenak agertuko dira, NANaren, atzerriarren nortasun agiriaren, pasaportearen edo dokumentu baliokidearen ausazko lau digitu gehituta. Hala behar denean, ez onartzearen arrazoia agertuko da.

Zazpigarrena.- Epaimahaia.

7.1.- Izendapena.

Hautaketa probak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak UPV/EHUko gerentearen erabakiaren bidez izendatuko dira.

7.2.- Epaimahaien osaera.

Epaimahaiek kide kopuru bakoitia izango dute, eta, betiere, epaimahaiburu bat eta epaimahaikideak izango dituzte. Epaimahaikideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaiko kide guztiek ordezko bana izango dute.

Epaimahaiak edo hautaketa organoak osatzean, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak bete beharko dira, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da; gainera, ezin izango dira epaimahaikide izan hautespen edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak, lan kontratudun behin-behinekoak, ez konfiantzako langileak. Hautaketa organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti, eta ezin izango da inoiz inoren ordezkarik edo inoren kontura izan hautaketa organoetako partaide. Hori guztia bat etorrita urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzekoak, 60. artikuluan zehaztutakoarekin. Era berean, ezin izango dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa probetarako hautagaiak prestatzen ibilitako plantillako langile finkoak edo karrerako funtzionarioak.

Epaimahaia osatzen duten guztiek izan beharko dute deialdian ateratako plazetarako eskatzen den titulazioaren maila berekoa edo goragokoa, eta gainera administrazio publikoko langile finkoak edo karrerako funtzionarioak izan beharko dute. Epaimahaikide gehienak ezin izango dira izan hautaketa prozesuko plazaren eskala bereko langileak edo funtzionarioak.

Zailtasun teknikoengatik edo bestelakoengatik hala komeni denean, epaimahaiek aholkularien laguntza baliatu ahal izango dute proba batzuetarako edo guztietarako, deialdiko oinarri espezifikoaren arabera. Aholkulariok beren espezialitate teknikoaz baino ez diote lagunduko epaimahaiari, eta hitza izango dute, baina ez botorik. Era berean, epaimahaiek laguntzaileak eduki ahal izango dituzte probak aurrera eramateko. Organo eskudunari proposatu beharko diote alde zuzenetik, hark baimendu dezan laguntzaile kopurua.

Aholkulari espezialisten eta laguntzaileen izendapena iragarki baten bidez argitaratuko da erakundearen webgunean.



7.3.– Abstentzioa eta errekusazioa.

Epaimahaikideak, aholkulariak eta laguntzaileak prozeduran parte hartzetik abstenituko dira, eta deialdia egin duen agintariari emango diote horren berri, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikuluan aipaturiko egoeraren batean badaude (40/2015 Legea, urriaren 1koa). Era berean, abstenitu egingo dira deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautagaiak trebatzen aritu badira deialdiko plazaren edo plazen eskala bereko edo eskalaren pareko hautaketa probetarako, edo epe horretan moduren batean kolaboratu badute deialdiko plazen eskalako oposizioetarako prestakuntza ematen duten zentroekin.

Epaimahaia eratzeko egiten den bileran, epaimahaiko buruak epaimahaikideei eskatuko die adierazpen formal baten bidez ziurtatu dezaten ez daudela halako egoeraren batean. Adierazpen hori bera egin beharko dute aholkulari espezialistek eta laguntzaileek ere.

Era berean, epaimahaikideak, aholkulariak eta laguntzaileak goian aipatutako egoeretakoren batean daudenean, interesdunek errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 23. artikulua babespenean eta 24. artikuluan zehaztutako prozedura betez (40/2015 Legea, urriaren 1koa).

7.4.– Jarduteko arauak.

Epaimahaiek beti jokatu dute administrazio prozedurari buruzko legeetan kide anitzeko organoentzat ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, epaimahaiko buruak agindurik eta idazkariak aldezturik deituta, epaimahaia probak hasi aurretik bilduko da, behar besteko tartetaz. Epaimahaia balioz eratzeko ezinbestekoa izango da epaimahaiko burua eta idazkaria (edo haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdiak bertaratzea.

Epaimahaiko kideen eta ordezkarien karguak hutsik baleude edo pertsona horiek kanpoan edo gaixorik baleude, edota lege arrazoi batengatik epaimahaian ezingo balira egon, antzinatean eta adin handieneko epaimahaikideak izango lirateke ordezkariak, hurrenkera horretan.

Erabakiak bertaratutako botoen gehiengoaz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiko buruaren kalitate botoarekin hautsiko dira.

Epaimahaiak gardentasun printzipioari jarraikiz arituko dira.

Kalifikazioetan eraginik daukan erabakirik hartuz gero, erabaki horiek guztiak jasota ageri beharko dira bileretako eta ariketetako aktetan.

Epaimahaiaren erabakien kontra egin ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1koa).

7.5.– Epaimahaiaren ahalmenak.

Epaimahaikideek erabateko autonomia funtzionalaz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduta eta objektibotasuna bermatzeko erantzukizuna beren gain hartuta.

Bestalde, ordenamendu juridikoari jarraituz, oinarri hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza eta gorabehera guztiak argituko dituzte, prozesu bakoitza zuzen betetzeko behar diren erabakiak hartu, eta irizpideak ezarriko dituzte deialdietan jasota ez dauden kasuak sortzen direnean.

Epaimahaietako buruek behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio faseko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko. Zuzenketa irakurgailu optikoaren bidez egingo da, eta probak hautagaia nor den jakin gabe zuzenduko dira.



Osasuna babesteko eskubidea eta funtzio publikoan sartzea arautzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bateratze aldera, eta, era berean, hautaketa prozesuen garapena ordenatzeko azkartasun printzipioa bateratze aldera, epaimahaiei gaitasuna ematen zaie probak edo faseetakoren bat (forma, prozedura eta hautagaien parte hartzeko ordena barne) garatzean beharrezkoak diren jarraibide edo ebazpen guztiak eman ditzaten, lehia askearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen direla eta hautaketa prozesua normaltasunez garatzen dela bermatzeko.

Hautagaiak azterketetan onartzearen inguruan sor litezkeen gorabeherak epaimahaiak ebatziko ditu, eta organo eskudunari jakinaraziko dizkio bere erabakiak.

Epaimahaiek, prozesuaren edozein unetan, deialdian eskatutako betekizunen egiaztagiria eskatu ahal izango dizkiete hautagaiei. Epaimahaiak helduko balira jakitera hautagairen batek ez duela baldintza bat edo gehiago betetzen, lehendabizi interesdunari entzungo liokete, eta gero, hala badagokio, pertsona hori hautaketa prozesutik kanporatzeko proposamen arrazoitua helarazi beharko liokete hautagai onartuen behin betiko zerrenda onartu duen organoari, eta, era berean, hautagaiak eskarian emandako datu okerrak edo faltsuak jakinaraziko lizkiokete, dagokien ondorioei begira. Administrazioaren organo eskudunaren erabakiaren kontra administrazioarekiko kasuan kasuko errekursoak jarri ahal izango dira.

Epaimahaiek prozesutik kanpo utzi ahal izango dituzte probetan edozein iruzur egiten saiatzen diren hautagaiak, ariketak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraituz egingo baitira. Era berean, hautaketa prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili lehenago aipatutako printzipioak saihesteko erabili ahal den gailu edo baliabide teknologikorik. Hautagairen batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa prozesutik kanporatua izango da.

Epaimahaien erabakiak lotesleak dira administrazioarentzat, nahiz eta administrazioak, egoki deritzon, berrikusi ahal izango dituen erabaki horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 106. artikulua eta hurrengoak). Hori gertatzen denean, berriz egin beharko dira kasuan kasuko probak edo tramiteak.

7.6.- Egoitza.

Jakinarazpen eta gainontzeko gorabeheretarako, epaimahaien egoitza hau izango da: Bibliotekako eraikina, Pertsonaleko Gerenteordetza, Sarriena auzoa, z.g., 48940 Leioa.

7.7.- Zerbitzu ordainak.

Epaimahaietako kideek zerbitzu ordainak jasoko dituzte egindako lanengatik, bertaratzea barne, arlo horretan indarrean dauden arauak jarraikiz.

Zortzigarrena.- Hautaketarako prozedura.

8.1.- Deialdi espezifikoetako hautaketa prozesuak lehiaketa-oposizio sistema erabilita egingo dira, eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak betetzen direla bermatuko da.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek oinarri orokor hauek osatu eta garatuko dituzte. Oinarri orokor hauek arautuko dute oinarri espezifikoetan beste era batera arautzen ez den guztia.

Hautaketa prozesu bakoitzeko zehaztasunak (plazen izaera eta ezaugarriak, eduki beharreko titulazioa, hautaketa probaren nondik norakoak, oposizio faseko ariketa edo probak



kalifikatzeko sistema, eta lehiaketa faseko merezimenduen balorazioa eta egiaztatzea), oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Hautaketa prozesu bakoitzean bereziki zainduko da gainditu beharreko probak bat etortzea lanpostuan bete beharreko zereginekin.

Hala ere, barne promozio txandako hautagaiak ezagutza egiaztatze probak egitetik salbuetsita egon ahal izango dira, baldin eta proba horien bidez jatorrizko eskalan sartzeko eskatu ziren ezagutza berak egiaztatze badira.

8.2.– Lehiaketa-oposizio bidezko hautaketa sistemak fase hauek izango ditu:

8.2.1.– Oposizio fasea.

Oposizio faseak deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako ariketak izango ditu.

8.2.2.– Lehiaketa fasea.

Lehiaketaren fasean oposizio fasea gainditu duten hautagaiak alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera.

Deialdi bakoitzean, merezimenduen baremoak atal hauek izango ditu:

- A) merezimendu profesionalak
- B) merezimendu akademikoak

Merezimendu horiek kontuan hartuko dira bakar-bakarrik eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortu direnean, 8.3 oinarrian aipatutako merezimenduaren kasuan izan ezik.

Ez da baloratuko, inolaz ere, epe kanpo aurkeztu eta egiaztatutako merezimendurik.

Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango eta fase horretan lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

8.3.– Euskara.

Hautagaiak, nahi izanez gero, euskara maila egiaztatu ahal izango dute, hizkuntza eskakizuna egiaztatze proba eginez parte hartzen ari diren hautaketa prozesuaren barruan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatze proba bakar batera aurkeztu ahal izango dira LEP honen barruan, hainbat deialdi espezifikotan parte hartzen badute ere.

AZPkoen Erregistroan eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden egiaztagirak ez dira aurkeztu beharko berriro, baina alegatu egin beharko dira.

Erregistro horretan ez dagoen euskarako beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu egin beharko da, betiere baliozkotuta badago azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehaztutakoaren arabera (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatze dena), eta titulu edo ziurtagiri hori lortu bada hizkuntza eskakizuna egiaztatze LEP honen deialdi espezifikoaren barruan deitutako proben behin betiko emaitzak argitaratu baino lehen.

Bestalde, hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi izanez gero apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatze salbuesteko dena), kasuan kasuko ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira.

Lortu ahal izango diren puntuazioak oinarri espezifikoetan zehaztuko dira, puntuazio osoarekiko ehuneko hauen arabera:



Eskalan 1. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE edo goragokoa izateagatik: % 5.

Eskalan 2. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE edo goragokoa izateagatik: % 10.

Eskalan 3. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE izateagatik: % 10.
3. HE edo goragokoa izateagatik: 15 %.

Eskalan 4. hizkuntza eskakizuna bada nagusi:

1. HE izateagatik: % 5.
2. HE izateagatik: % 10.
3. HE izateagatik: % 15.
4. HE izateagatik: % 20.

8.4.- Lehiaketa-oposizio bidezko sistemaren hasiera eta garapena:

8.4.1.- Oposizio fasea.

Hautaketa prozesua oposizio fasearekin hasiko da, eta gutxienez lau (4) hilabete igaro beharko dira oinarri espezifiko bakoitzean jasotako galdera sortak argitaratzen direnetik.

Kasuan kasuko epaimahaiak erakundearen webgunean argitaratuko duen iragarkiaren bidez jakinaraziko dira oposizio fasea egiteko lekua, data eta ordua.

Deialdi bakarra egingo da oposizio faseko ariketarako, baina baliteke ariketa saio batean baino gehiagotan banatzea, dagokion epaimahaiaren irizpidearen arabera. Hautagai bakoitzak deitu zaion saiora agertu beharko du. Bere burua identifikatzeko, hautagaiak eraman beharko du ariketara nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidatzeko baimena edo epaimahaiak onartzen duen beste edozein agiri.

Ariketetara agertzen ez diren hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira, baldin eta ez badute alegatu eta justifikatzen aldeztutako ariketara joan ezina. Epaimahaiak erabaki arrazoitu bat eman beharko du halakoen inguruan. Hautagaia nahitaezko ariketara agertzen ez bada deitzen zaionean, automatikoki galduko du ariketa hori eta hurrengoak egiteko eskubidea, eta, hortaz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Hautagairen batek ezin badu hautaketa prozesuan parte hartu arriskuko haurdunaldiagatik, erditzeagatik edo bestelako osasun egoera oso larri batengatik, eta hori behar bezala egiaztatzen badu eta epaimahaiak onatzen ematen badu, atzeratu egingo zaizkio falta zaizkion faseak, eta horiek gaitzazko baldintzapean geratuko da. Dena dela, atzerapenak ezin izango dio kalterik egin beste hautagaiek prozesua arrazoitzeko epean ebatzia izateko duten eskubideari. Epaimahaiak baloratu beharko du hori, eta, edozelan ere, atzeratutako probak beti egin beharko dira prozesua gaitzazko baldintzen zehar argitaratu aurretik.

Aurreko atalean adierazitako egoeraren batean dauden hautagaiek beren egoeraren berri eman beharko dute, egoera hori ezagutu bezain laster, eta, nolabait ere, azterketaren eguna eta



ordua baino lehen, eta egiaztagiriak aurkeztu beharko dizkiote epaimahaiari, eskuratu bezain laster eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, egoera jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Epaimahaiak egoera baloratuko du eta, ontzat emanez gero, beste data baterako deituko du hautagaia azterketa egiteko. Azterketaren hasiera data baino beranduago jakinarazitako egoerak ez dira baloratuko, ezta ere egiaztagiriak epearen barruan aurkezten ez dituzten hautagaienak (bi egun balioduneko epea egoeraren berri ematen denetik hasita).

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta/edo baliabideak egokituko dituzte desgaitasuna duten hautagaientzat eta haurdun edota erditzen daudenentzat, edo ezinbesteko egoeraren baten daudenentzat, baldin eta egokitzapena behar badute eta hala adierazi eta egiaztatu badute eskarian. Hartara, azterketak gainerako parte hartzaileen baldintza berberetan egingo dituzte, betiere horrek proben edukia desitxuratu barik eta probetan eskatzen den gaitasun maila jaitsi gabe.

Oposizio faseko ariketak deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten denaren arabera kalifikatuko dira.

Oposizio faseko ariketa behin zuzenduta, epaimahaiak, kalifikazioak aintzat hartuta, ariketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak egingo ditu, puntuazioaren arabera ordenatuta:

- a) Txanda librean ariketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan ariketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.

Ariketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute honetarako:

- a) Erreklamazioak jartzeko.
Erreklamazio horiek behin ebatzita, oposizio fasea gainditu duten pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.
- b) Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko.

b.1.– Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko:

5.3 oinarrian zehaztutakoari jarraikiz, ondorengo dokumentuen fotokopia aurkeztu beharko da, baldin eta dokumentua ez badauka jada UPV/EHUko Pertsonaleko Gerenteordetzak:

1.1.– Merezimendutzat alegatutako titulu akademikoak.

Titulua, edo titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izanaren dokumentua, edo, bestela, interesduna titulua jasotzeko proposatua izan delarik, hala egiteko moduan egotearen ziurtagiria, edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu bat.

1.2.– Hizkuntzak.

Bakarrrik baloratuko dira, maila bakoitzean, UPV/EHUko errektoreak 2012ko martxoaren 8an emandako Erabakian aipatutako titulu eta ziurtagiriak (hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzko erabakia, Koordinazioaren eta Nazioarteko



Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez eguneratua), edo erabaki horren ordeko arautegian aipatutakoak.

Balorazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen denean, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

1.3.– Esperientzia profesionala.

UPV/EHUK ofizioz erantsiko ditu ziurtagiriak unibertsitatean lanean egon diren hautagaien kasuan.

Gainerako administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeke, kasuan kasuko administrazioak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da (eranskinetako ereduari jarraikiz), non zehaztu beharko diren lan egindako aldiak eta taldea eta eskala. Hala ere, ez da ziurtagiri hori aurkeztu beharko zerbitzu horiek UPV/EHUK aitortuak baditu hirurtekoen ondorioetarako.

Oposizio fasea gainditu ez dutenek errekurtsua jarri badute, kautela neurri gisa, dokumentuak baldintza berberetan aurkeztu ahal izango dituzte, errekurtsoren ebazpenak hasierako fasea gainditzea ekar dezake eta.

b.2.– Dokumentazioa ez aurkeztea:

Alegatutako merezimenduak egiaztatzeke beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu ezean, ez dira merezimenduak baloratuko. Era berean, egiaztapenak aztertuta ikusiz gero hautagaiak ez duela alegatutako merezimenduen bat, ez da baloratuko merezimendu hori, baina bai gainerako guztiak.

39/2015 Legearen 68. artikulua adierazitakoarekin bat etorruta, alegatutako merezimenduak egiaztatzeke dokumenturik falta bada, UPV/EHUK iragarki bat argitaratuko du webgunean interesdunei jakinarazteko hamar (10) egun balioduneko epea daukatela falta diren dokumentuak bidaltzeko, eta, horrela egin ezean, merezimenduak ez direla kontuan hartuko lehiaketa fasean.

8.4.2.– Lehiaketa fasea.

Lehiaketa fasea oposizio fasea amaitu ondoren hasiko da.

Lehiaketa fasean merezimenduak baloratuko dira deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztutako baremoen arabera: puntuak esleituko zaizkio merezimenduen atal bakoitzari, eta atal guztietako puntu batura izango da fase honetako balorazio orokorra.

Merezimenduen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, hautagaiek zazpi (7) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazio horiek behin ebatzita, merezimenduen behin betiko balorazioa argitaratuko da.

8.5.– Deialdi espezifiko bakoitzeko azken kalifikazioa.

Deialdi espezifiko bakoitzeko azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioen batura gehi euskara izango da.

Deialdi espezifiko bakoitzeko behin-behineko kalifikazioa erakundearen web gunean argitaratuko da lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako zerrendan, eta adierazita izen-abizenak eta NANaren edo atzeritarren, pasaportearen edo agiri baliokidearen identifikazio zenbakiaren ausazko lau zifra.



Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:

- 1) Puntuaziorik handiena UPV/EHUko esperientzian, funtzionarioen edozein taldetan, karrerako funtzionario legez zein bitarteko funtzionario legez, edo edozein kategoría profesionaletan, lan kontratudun finko legez zein aldi baterako lan kontratudun legez; egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 2) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.
- 3) Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.
- 4) Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioako kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.
- 6) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.

Behin-behineko azken kalifikazioarekin batera deialdi espezifiko bakoitzean eskaintzen den lanpostuen zerrenda argitaratuko da.

Eskaintako lanpostuen zerrendan zehaztuta egongo dira: eskala, lanpostuaren izena, atxikipenez dagokion zentro organikoa, lanpostua zein udalerritan dagoen, lanpostu mailako osagarria eta osagarri espezifikoak, hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanaldia eta lanpostuaren betebeharrak espezifikoak.

Prozesuko azken kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek zapi (7) egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, argitara emango dira hautaketa prozesuko behin betiko kalifikazioak.

Eskaintako plaza kopurua eta eskari kopurua oso handia izango denez, eta, beraz, nekeza izango denez abuztuan epeak betetzea, abuztua baliogabea izango da hautaketa probetako epeak kontatze aldera.

8.6.– Lanpostuak aukeratzea.

Deialdi espezifiko bakoitzeko hautagaien behin betiko azken kalifikazioa argitaratu ondoren, lanpostuak aukera beharko dira, eta horretarako epea zapi (7) egun baliodunekoa izango da.

8.6.1.– Lanpostua aukeratzeko eskariak.

Lanpostuak bitarteko elektronikoen bidez eskatu behar dira, Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztatzea eskuratuko da.



Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikoa egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira, halakorik behar izanez gero.

Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikoa egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

8.6.2.- Talde bitara zabalduetako lanpostuetarako arau espezifikoa:

Lanpostuen zerrendan talde bitara irekita dauden lanpostuetako titularrak kasuan kasuko eskalan sartzen direnean, beren lanpostuan jarraitu ahal izango dute (lanpostuak aukeratzeko eskarian horrela adierazi badute); lanpostuak lanpostuen zerrendan daukan hornikuntza sistema bera izaten jarraituko du.

Horrelakoetan, pertsona horiek ez dute parterik hartuko hautaketa prozesuko puntuen hurrenkerari jarraituz lanpostuak esleitzeko prozesuan, bat etorrita abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko 22.1 artikuluko azken aurreko paragrafoarekin.

Hautatutako pertsonak lanpostuak aukeratzeko eskarian adierazi badu ez duela jarraitu nahi titular den lanpostuan, lanpostu hori esleipenerako eskainiko da, betiere, pertsona horrek hautaketa prozesua onartu eta gaituz badu. Pertsona horrek, bestalde, lanpostua aukeratu du prozesuan lortutako hurrenkeraren arabera.

Lanpostuen zerrendan talde bitara zabaldua dagoen lanpostu bateko titularrak ez badu gaituzten prozesua, hautaketa prozesua gaituztuta duten hautagai guztiek barne promozioa gauzatu behar dutenez, plaza hori pertsonari atxikipenez dagokion plazari egotziko zaio, edo, plantillaren premiak kontuan hartuta, administrazioak berak erabakitzen duen plazari.

8.6.3.- Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonen gaituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak.

8.7.- Oposizio faseko nota mantentzeko aukera.

Lehiaketa-oposizio bidezko sistemako prozesu orokorrean, salbuespen gisa, hautagaiak hurrengo LEPan oposizio faseko ariketak egiteaz salbuespena geratuko dira, baldin eta funtzionarioen eskaletarako gordetako plazetarako deialdian oposizio fasean gehienez lor daitekeen puntuazioaren % 70etik gorako nota lortu badute, eta, betiere, hurrengo LEPan talde, eskala eta txanda berean aurkeztu badira. Hala ere, nota hobetu nahi izanez gero, aurkezteko aukera izango dute. Kasu horretan, nota txikiagoa lortuz gero edo oposizio fasea gaituztuta ezean, 2019-2020-2021 eta 2022ko lan eskaintza publiko bateratuko deialdian lortutako nota gordeko zaio hautagaiari.

Edonola ere, aukera hori soilik aplikatuko da, baldin eta gai zerrendaren eta ariketen edukia eta horiek kalifikatzeko moduak parekoak badira, eta nahitaezkoa izango da hautaketa prozesuan parte hartzeko izena ematea.

Bederatzigarrena.- Hautatutako pertsonen zerrenda. Lanpostuak esleitzea.

9.1.- Lanpostuak hautatzeko epea amaituta, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin-behineko zerrenda egingo da, kontuan hartuta hautagai bakoitzaren puntuazio hurrenkera eta adierazitako lehentasunak, betiere, lanpostuan aritzeko baldintzak betetzen badituzte, eta kontuan hartuta, era berean, 8.6.2 atalean zehaztutakoa. Hamar egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, baina bakarrik hautagaien eskatutako lanpostuei dagozkien betebeharrak espezifikotarako.



Erreklamazioetarako epea amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Epaimahaiak ezin izango ditu deialdian ateratako plazak baino hautagai gehiago aukeratu, eta muga hori gainditzeko duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

Hala ere, gerta liteke aukeratutako hautagaien batek uko egitea plazari, edo aurkezten duen dokumentazioan agerian geratzea ez dituela eskatutako betekizunak betetzen, edo ezusteko arrazoiengatik plaza ezin betetzea. Hori dela eta, epaimahaiak proposatutako izendapenen kopurua deialdian eskainitako plazen kopuru bera denean, plaza guztiak beteko direla ziurtatzeko, plazaz jabetu aurretik organo eskudunak epaimahaiari eskatu ahal izango dio proposatu dituen hautagaien ondoren geratu diren pertsonen zerrenda emateko; hartara, hala behar izanez gero, horiek ordezkatzeko dituzte hasieran proposatutako hautagaiak.

Hautaketa prozedurari amaiera ematen dion ekintza arrazoitua izan beharko da. Bere diskrezionalitate teknikoa erabiliz balorazioak egiten dituztenean, epaimahaiak legeen, arautegien eta deialdiaren oinarrien arabera emango du bere ekintzen arrazoibidea.

9.2.- Lanpostuak Pertsonaleko Gerenteordetzak esleituko ditu, hautatutako pertsonen eta esleitu zaizkien lanpostuen behin betiko zerrendari jarraituta, betiere kontuan hartuta kasuan kasuko hautagaiak Lanpostuen Zerrendan lanposturako zehaztutako baldintzak betetzen dituela eta, era berean, kontuan hartuta eskainitako lanpostu guztietatik hautagaiak egindako aukera eta hautagai horrek hautaketa prozesuko behin betiko zerrendan daukan hurrenkera.

Nahiko hautagai ez dagoenean edo daudenez ez dituztenean betetzen prozesua gainditzeko gutxieneko baldintzak, epaimahaiak organo eskudunari eskatuko dio bete ez diren plazak hutsik uzteko.

Hamargarrena.- Dokumentazioa aurkeztea.

10.1.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

10.1.1.- Hautatuen behin betiko zerrendako pertsonen, 5.3 oinarriari jarraikiz, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte beren gaitasuna egiaztatzeko eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzeko. Dokumentuok, baina, ez dira aurkeztu beharko administrazioaren esku badaude, baina hala izan arren prozesuan parte hartzeko eskarian adierazi bada ez zaiola baimenik ematen administrazioari dokumentuak kontsultatzeko, aurkeztu egingo dira. Hauek dira aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Indarreko NANaren, pasaportearen edo nazionalitatea egiaztatzen duen beste edozein dokumenturen fotokopia, ez bada UPV/EHuko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.

b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 43. artikuluan zehazten diren tituluak (deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutakoak kasu bakoitzerako), edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen agiria edo ikasketak osorik egin eta gainditu izanaren ziurtagiri akademikoa edo titulua daukala egiaztatzen duen dokumentu ofiziala, ez bada UPV/EHuko Pertsonaleko Gerenteordetzan badutela dokumentu hori interesdunak lehenagotik aurkeztua duelako.

c) UPV/EHuko Osasun Zerbitzuak emandako medikuaren ziurtagiria, non adieraziko baita interesdunak ez duela eskatutako lanpostuaren zereginak betetzea eragozten dion



gaixotasunik edo akats fisikorik. Ez da ziurtagiri hau beharko barne promozioa lanpostu bererako denean.

d) Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean eskatzen diren gainerako betekizunen egiaztagiriak, besterik eskatuko balitz.

e) Desgaitasuna duten eta deialdietan parte hartu duten hautagai guztiek aurkeztu beharko dute beren desgaitasun maila frogatzen duen indarreko ziurtagiria, kasuan kasuko organo eskudunak egina.

10.1.2.- Oinarri honetako aurreko puntuetan adierazitako dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa daukaten dokumentuak (aldaeiznak izan daitezten), edo kopia konpultsatuak. Kopia horietan, balioa izan dezaten, informazio hau agertu beharko da: konpultsaren data eta dokumentua konpultsatu duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

10.1.3.- Hautagaiak ezin baditu dokumentu horiek aurkeztu eta hala justifikatzen badu, zuzenbidean onartzen den beste edozein modutan frogatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

10.2.- Dokumentuak aurkezteko tokia eta epea.

Dokumentuak hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, hautaketa prozesuaren azken eta behin betiko kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Pertsonaleko Gerenteordetzan (UPV/EHUko Errektoregoko eraikina, Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa).

10.3.- Dokumentazioa ez aurkeztea.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, hautagaiak epe horretan dokumentazioa aurkezten ez badute edo dagozkien zereginak betetzeko eska daitekeen gaitasun fisiko edo psikikorik ez badute, deuseztatu egingo dira haien ekintza guztiak, eskarian gezurra esateagatik eska lekietan erantzukizuna ezertan eragotzi gabe.

Halakoetan, epaimahaiak ondoren sailkatutako pertsona proposatuko du, prozesua gainditu duten hautagaien behin betiko zerrendako hurrenkerari jarraituta, zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera. Horretarako, epaimahaiak hautatutzat joko ditu aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hutsik geratu diren plaza adina hautagai.

Hamaikagarrena.- Karrerako funtzionarioen izendapena eta lanpostua jabetzan hartzea.

2024ko abenduaren 31 baino lehen, errektoreak erabakia emango du hautatutako hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko, zehaztuta esleitutako lanpostua. Lanpostuaren jabetza hartzeko epea hilabetekoa izango da, luzaezina, izendapenen erabakia EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Hamabigarrena.- Komunikazioak eta gorabeherak.

12.1.- Hautaketa prozesu bakoitzari lotutako egintza eta akordio guztiak erakundearen webgunean argitaratuko dira.

Argitaratze horiek lotesleak izango dira oposizio faseko ariketak egiteko deialdietarako, bai eta, hala dagokionean, lehiaketarako ere. Era berean, argitaratze horien datak emango die hasiera



deialdian ezarritako epeei eta oinarrien eta epaimahaiaren ohiko jardunaren arabera ireki beharko diren gainerako epe guztiei.

12.2.- Hautagaiek epaimahaiari eta UPV/EHUko organo eskudunari helarazi ahal izango diete epaimahaiko kideen edo gainerako hautagaien egintzen inguruan sor litezkeen gorabeheren berri. Era berean, hautaketa prozesuaren inguruko erreklamazioak, kexak, eskariak edo iradokizunak ere helaraziko dizkiete.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalak babestea hautaketa prozesuaren kudeaketan.

13.1.- Oinarri hauen xede den edozein hautaketa prozesutan parte hartzeak berez dakar hautagaiak baimena ematea eskarian jasotako bere datu pertsonalak -izen-abizenak, NANA eta prestakuntza maila- erabil daitezen aldizkari ofizialetan, iragarki oholetan, webgunean eta, oro har, hautaketa prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzak komunikatzeko erabilitako beste edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPeke edo erakunde eskudunak euskara mailaren akreditazioa egiazta dezan eta epaimahaiak berak edo hark aukeratutako erakundeak edo enpresak hautaketa prozesuari dagozkion probak zuzen prestatzeko eta egiteko beharrezkoak diren datuak erabil ditzan ere.

Oinarri hauen xede diren hautaketa prozesuak publikotasun printzipioak gobernatzen ditu; beraz, eskaria ez da onartuko, baldin eta hautagaiak bere datuak ematea onartzen ez badu aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

13.2.- Hautaketa prozesuen gestioan, datu pertsonalak «Lanpostuen aukeraketa eta hornitzea» eta «Langileen espedienteak» izeneko fitxategietan tratatuko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren erabakiaz sortuak biak (Unibertsitateko datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko Erabakia, 2007ko apirilaren 11ko EHAA). Bi fitxategi horien administrazio organo arduraduna Euskal Herriko Unibertsitatea bera izango da, eta bertako datuak babesteko ordezkariarengana jo beharko da datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak baliatu nahi izanez gero.

13.3.- Eskariak aurkezteko era guztietan (bosgarren oinarrian aipatuak) gai horri buruzko informazio klausula bat jarriko da.

13.4.- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioko langileek, epaimahaietako kideek eta horiei laguntasuna ematen dieten adituek, halakorik egonez gero, isilpean gordeko dute prozesuaren gestioan zehar euren eskuetara heltzen diren datu pertsonalen informazioa.

13.5.- Oinarri hauei jarraituz deialdi espezifiko bakoitzeko hautaketa prozesuko faseetan argitara ematen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan gutxieneko datu pertsonalak agertuko dira, publikotasun printzipioa betetzeko beharrezkoak direnak baino ez. Zerrenda horiek prozesua amaitu arte egongo dira ikusgai eta, era berean, erreklamazioak edo errekursoak jartzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora guztian.

Zerrenda horietan klausula bat jarriko da, esateko datu pertsonalak dauzkatela, zerrendak bete egiten duela datuak babesteko alorrean indarreko legeriak dioena, eta zerrendaren helburu bakarra dela hautaketa prozesuko kasuan kasuko fasearen berri ematea eta parte hartzaileak jakinaren gainean jartzea. Era berean, paragrafo batean adieraziko da zerrenda horiek ez direla egongo herritarren esku; ezingo direla kopiatu, ez osorik ez zati batean; eta ezingo direla ez transmititu ez erregistratu informazioa berreskuratzeko inolako sistemarik erabilia, baldin eta interesdunek horretarako baimenik ematen ez badute.

**AZKEN XEDAPENA.– Oinarriak indarrean sartzea.**

Oinarri orokor hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egunaren biharamunean sartuko dira indarrean.